



ZINEMAKO IRRIBARREAK

Zure ametsak egi bihurtzen ditugu



ODONTOLOGIA OROKORRA

ORTODONTZIA

Invisalign < BERRITASUNA
Ezkutuko mihi-ortodontzia ikusezina < BERRITASUNA
Zeramika eta zirkoniozko bracket oso estetikoak < BERRITASUNA

PERIODONCIA

Diagnosi digital periodontala < BERRITASUNA
Análisi mikrobiologiko periodontal eta genetikoa < BERRITASUNA
Periodontitis-tratamendua kirurgiarik gabe < BERRITASUNA
LASER diodoa
Mentuak hortzoietan

AHO-KIRURGIA

Ateratze zailak eta sustrai-hondarrak
Azkenaginak ateratzea kirurgiarekin
Barneko hortzak ateratzea

INPLANTOLOGIA

Hezur eta hortzoi gabeziarentzako tratamenduak
Hezur-birsortzea biomaterial bidez < BERRITASUNA
Hortzoi-birsortzea
Inplantologia transzigomatikoa < BERRITASUNA
Hortz finkoak egunean bertan inplanteekin < BERRITASUNA

PROTESI FINKOA

Metalezko koroa libreak < BERRITASUNA
Zirkoniozko koroa puruak < BERRITASUNA
CAD-CAM koroak (ordenagailuz egindakoak) < BERRITASUNA
Karillak

MUGITU DAITEZKEEN PROTESIAK

Oklusioa eta ATM

OKLUSIOAREN DIAGNOSI DIGITALA < BERRITASUNA

ZURIKETA LASER bidez saio bakarrean < BERRITASUNA

ODONTOPEDIATRIA (PADI)

ERRADIOLOGIA DIGITALA

SUDUR-LASAIGARRIA < BERRITASUNA

MUTUA ETA ASEGUURUAK

GLOBAL CARD, EMESA PREVENCIÓN, MUTUA UNIVERSAL, FRATERNIDAD,
CARREFOUR LIFE, IMQ, AZKARAN, PREVISORA BILBAINA, SANTA LUCÍA,
AEGÓN/STONEBRIDGE, OCASO, AVANTSALUD, PADI...

ZERBITZU BERRIAK

ETENGABEKO ORDUTEGIA

Asteleheneretik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara



LARRIALDIETARAKO TELEFONO BIDEZKO ARRETA **24 orduz** GALDETU



GALDETU 2. mediku-iritzia

Unibertsitate entzutetsuetan
irakasleak gara.
Ospea duen zentroa gara.



ETXEZ-ETXEKO ARRETA-ZERBITZUA

Etxeko arreta:
Pazientea jaso
eta etxera itzuli
GALDETU



IRAZABAL

clínica dental

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

Promozio bereziak 2013ko martxoaren 15era arte, kupoi hau aurkeztuz

%20 Deskontua
hortz-
inplanteetan*

*Solilik hortz-inplanteetarako

%10 Deskontua
larunbatetan
egindako
tratamenduetan

LASER bidezko zuriketa
Hortzetarako arkatx zuritzailea
Higienea 525 €
BESTELAKO PROMOZIOAK: GALDETU



Alberto
Agirreazaldegi

Hogei urte direla diote. Atzo zela dirudi, baina azkar pasatzen dira urteak gero. Nork esango zuen orduko ume hura adin nagusiko egingo zela hain azkar! Baina ez naiz nostalgiko jarriko hasiera gogoratuz. Bakarrik esango dut zirrargarria izan zela, eta, zailtasunez betetakoa izan arren, merezi izan zuela.

Hogei urteren ondoren iraupenarekin kezkatuta gaude. Hasierra hartan ez nuen zalantzarik hogei hartuko zituela. Orain ez gaude ziur hogeitabat egingo dituen. Orduan irakurleen eta elgoibartarren konfidantza lortzea zen gure kezka nagusia. Orain, hori guztia lortu eta gero, BARRENEK etorkizuna kolokan dagoela dirudi.

“Zenbat bilera eta buruhauste!

Ordutik hona 847 ale atera dira etenik gabe”

Hedabideak orokorrean, eta prentsa idatzia bereziki, minbiziak jota claudela dioskue adituek. Internetek aukera hobeak ekarriko zizkigula uste genuen, baina badirudi alderantziz izan dela. Interneten aroan prentsa idatziaren krisia etorri da. Nola liteke hau? Nork pentsa zezakeen halakorik? Mundu globalizatu honetan estu eta larri dabilta hedabide indartsuak ere. *El Pais*-ek kazetari asko kaleratu ditu eta aste honetan itxiko dute *The Daily* egunkari digitala. Beraz, irtenbidea ez da, nahitaez, edizio digitala. Hala ere, badira euskarria baino kontu garrantzitsuagoak: eskaintzen zaigun edukia erakargarria izatea, irakurleak horren jabe izatea, eta, azkenik Elgoibarko edo bailarako aldizkari erreferente izatea. Horietan eta tamainan asmatzen badugu, bideragarria izango da. BARRENEK ez da, inola ere, horien mailakoa, baina, agian, hortxe dago giltza.

Kontu hauetaz jardutean gaztetu egiten naiz eta, erronka zail eta interesgarriak datozkit burura. Zenbat bilera eta buruhauste! Ordutik hona 847 ale atera dira etenik gabe. Soka ez da eten. Badago oraindik zeregin. Hauek dira, Ainhoa, niri barren-barrenetik datozkidanak. Eta zuri?



Ainhoa
Andonegi

Ikusten dut, Alberto, BARRENEK barranean daramazula oraindik. Proiektuari asko eman zezion seinale. Eta badakizu, asko ematen duenak asko jasotzen du, baina asko maite duenak asko sufritu ere asko egiten du.

Orain dela hamar urte hasi nintzen BARRENEK lanean, eta gauza asko bizi izan ditut ordutik. Gauza onak eta txarrak, poztasunak eta tristurak, buruko minak eta haserreak ere bai eskotan.

Ez dugu beti asmatzen, eta badakigu, baina kazetaritzan denen gustua egitea oso zaila da. Hala ere, intentzio txarrik gabe egindako hutsak barkatzen badakite elgoibartarrek. Herri-tarrek gertuko sentitzen gaituzte, estimatzen gaituzte eta horren seinale dira gehienetan euren haserreak; guztiak ere ulertzekoak.

“Ez dugu beti asmatzen, eta badakigu,

baina zaila da denen gustua egitea”

Aitortu behar dut hamar urte hauetan BARRENEK asko eman didala, baina arduratuta nago etorkizunarekin; oso arduratuta. Ni, egia esatea nahi baduzu, nola edo hala BARRENEK eustearen aldekoa naiz, baina honetaz nik baino gehiago dakitenez, herri mailako komunikazio-proiektuek ez daukate etorkizunik. Eta hori sinistuta jardun du Elgoibarko Izarrak azken bi urteotan bailarako proiektua lantzen, Debabarreneko gainerako euskara-elkarteekin batera. Baina uretara salto egiteko ordua iritsi denean, bailarako igerilekuan ere behar baino ur gutxiago dagoela konturatu gara, eta oraingo, bailarara ere ezin dugu salto egin.

Zer egin behar dugu Elgoibarri eta elgoibartarroi hainbeste eman digun proiektu honek segida izan dezan? Ez dakit herrikoa edo bailarakoa izan behar duen biharko BARRENEK, baina nik argi daukat horrelako proiektu batek mesede handia egiten diola gure herri izaerari, eta behar dugula horrelako proiektu bat. Erabakiak hartu arte, ostiralero, elgoibartarren etxeetako atea jotzen segituko dugu.



I. URTEURRENA

MIKEL IRIONDO ARRIOLA

2011ko abenduaren 12an hil zen, 75 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, abenduak 16, eguerdiko 12:00etan Mendaroko Garagartzako elizan. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik. Familiakoak.



Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 744 112

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzikizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,
Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA**
Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz **MAKETAREN**
DISEINUA Jaione Unanue **KOLABORATZAILEAK**
Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres
Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola,
Arkaitz Irueta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai
Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus
Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes
Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa
Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga,
Amaia Larrañaga **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.
E. TIRADA 4.800 ale **LEGE GORDAILUA** SS-
1.038/92 **ISSN** 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Astakeria zirudien astekaria

Begiak itxi eta atzera egin behar dugu; 1992ko abendura salto egingo dugu. Gairai hartan Elgoibarko Izarra berriak lehen urratsak ematen ziharduen, 1991n ezin zela desagertu erabaki ondoren. Proiektu erakargarri bat nahi genuen; desagertzeare egon ondoren, elkartearen izena eta konfiantza berreskuratzeko proiektu bat. Eta inguruko herrietan antzerako proiektuek funtzionatzen zutela ikusi ondoren, guk ere aldizkari bat egingo genuela erabaki genuen. Erronka handia zen, oso handia, baina ilusioz eta energiaz beteta geunden, eta desafioari aurre egitea adostu genuen. Batek baino gehiagok esan zigun astakeria zela astekari bat egitea; ea zerekin bete behar genituen 32 orrialde; ea zeinek egingo zuen publizitatea; ea... Baina, zorionez, ez ginen beldurtu.

Lauzpabost profesional eta beste horrenbeste bazkide-militante elkartu, eta orduak bata bestearen atzetik sartu genituen abenduaren 24a magikoa izan zedin. Iritsi zen eguna, eta urduri geunden, Olentzerok zer ekarriko zigun zain. Baina, itxura denez, ez ginen hain gaizki portatu, eta Olentzerok guk nahi genuena oparitu zigun: elgoiBARREN astekaria. Magikoa izan zen, benetan.

Lehen asteetan elgoiBARREN lotsati irten zen kalera, beldurtuta moduan, kolorerik gabe. Baina berehala konturatu zen elgoibartarrek estimatzen zutela. Bai herrian bizi zirenek eta baita kanpoan zeudenak ere. Eta hasieran txikia eta lotsatia zena, handituz eta aldatuz joan zen poliki-poliki. Gorputza eta konfiantza hartzen. BARRENek hogeitau urte bete dituen arte.

Begiak zabaltzeko moduan gaude, eta hasieran astakeria zirudien astekaria, gure bizitzako parte dela ikusiko dugu. Elgoibartarrek eta BARRENek bat egin dutela ohartuko gara; hogeitau urteko ibilbidearen ondoren, bien arteko hautsi ezineko harremana sortu dela. Izan ere, herriak BARREN behar du; ostiralero zain dago aste horretan zer esango dion irrikaz. Eta BARREN ere etengabe dago herriari begira, herrian baitago notizia; herritarren artean baitaude asteroko protagonistak. Kasu honetan kateak ez dira ebaki beharrekoak.

Baina hogeitau urteko gaztea arduratuta dago. Txikia zeneko ilusioa eta bizipoza dauka, baina diru gehiago behar du aurrera egiteko. Nahi du, baina ezin du. Bere emana handitu eta hobetu nahiko luke, baina dirua falta du. Herritik bailarara salto egitea ere pentsatu du azken bi urteotan, baina bailaran ere oinutsik dabilza txakurrak.

Erabakiak hartzeko unea iritsi dela uste dugu. Eta, batez ere, bat da hartu behar dugun erabakia: elgoibartarrok nahi eta behar dugu BARREN astekaria? Galdera horri zintzo erantzun behar diogu. Eta nahi/behar dugula erabakitzen badugu, beste ahalegin bat egin beharko dugu denok. Bai Elgoibarko Izarrak, bai irakurleok eta baita Udalak ere. Eta ez duela merezi erabakitzen badugu, berriz, esan dezagun inolako beldurrik gabe, eta itxi ditzagun ateak.

Hogeitau urte barru BARRENek 40 urte beteko dituen ala ez erabaki behar dugu. Denok.

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarte

BERTSO SAIOA

abenduak 27 / 22:00 / Elgoibarko Herri Antzokia

UNAI ITURRIAGA
ALAIA MARTIN
ANDONI EGAÑA
XABIER AMURIZA
JON MAIA

Gai-jartzailea:
UXUE ALBERDI

Sarreraren aurre-salmenta abenduaren 17tik 21era Elgoibarko Izarran



Zerk sortu du krisia? Lehentasuna etekin ekonomikoak metatzeari ematea, ez pertsonen bizitzari eta zainketari.

#EgitekoAsko

Enakumoen eta Gizonen Berdintasunerako II. Foru Plana



berdintasuna **
egiteko asko
www.berdintasuna.tv

Zer lortu dugu ‘**BARREN**’ astekariarekin hoge urteotan?

Asko da hoge urteotan BARRENEK, edo BARRENI esker, elgoibartarrok lortu duguna. Hurrengo bi orriotan, guk jaso eta adostu ditugun lorpen batzuk ekarri ditugu zuokin konpartitzeko. Baina arrosa artean beti egoten da arantzaren bat, eta BARRENEK kasuan ere, lorpenak ez ezik lortu gabekoak ere izan dira. Ikus ditzagun batzuk eta besteak.

BARRENEKIN LORTU DUGUNA:

- **Proiektua martxan jarri eta hainbeste urtean maila altuan mantentzea:** Horrelako proiektu bat martxan jartzea ez da erraza. Zaila da, baita ere, martxan jarri eta jendearen gustukoa izatea. Eta are eta zailagoa da jendearen gustukoa den zerbait luzaroan maila altuan mantentzea.

- **Herri mailako proiektu erreferente eta komunikatiboa izatea:** la herri guztira zabaldua dago BARREN (4.800 etxetara banatzen da), eta Elgoibarko proiektu komunikatiboa dela esatera ausartuko gara. BARRENI esker, elgoibartarron arteko distantziak lehen baino txikiagoak dira. Izan ere, BARRENEK elkarren berri ematen digu, eta, ondorioz, Elgoibar lehen baino herriagoa da.

- **Proiektu parte-hartzailea eta plurala izatea:** BARREN ez da bospasei profesionalak ondo egindako lanaren fruitua. BARREN elgoibartarron artean egiten da. Besteak beste, kolaboratzaile asko eta finak izan dira elkarrizketak egiteko; erretratu zaharrak herritarrek ekartzen dizkigute astero-astero; publizitate-orriak herriko merkataritza-etxeek betetzen dituzte; zorion-agurreko orria betetzeko astero-astero etortzen da hamaika lagun; dozenaka lagunek idatzi dute gutunen bat; ehunka lagun izan dira iritzi-artikuluen bidez beren iritziak eman dituztenak; ia 5.000 lagun egon dira prest kale-inkestan azaltzeko... Horiek denak egiten dute BARREN, eta, akaso, horregatik estimatzen dugu: denon artean egiten dugulako. Gainera, ez da sektore edo adin-tarte jakin bati zuzendutako proiektua. BARRENI adin, sektore, ideologia eta klase guztietako jendeak zabalitzen dio ostiraletan portaleko atea.

- **Proiektua gertukoa, zuzena eta konfiantzazkoa izatea:** BARRENERA iristea oso erraza da. Telefonoz, e-mailez edo BARRENEKO egoitzara azalduta, etengabekoa da herritarren eta BARRENEKIN arteko harremana (hartu-eman).

- **Irekia eta autonomia izatea:** BARREN ez da euskaldunentzat bakarrik; ez da abertzaleentzat prestatutako astekaria; BARRENEK ez da ideologia jakin batekin pentsatuta egiten; BARREN EL-

goibarko berri euskaraz jaso nahi duten guztientzat da, eta irekita dago barruan gustura sentitzen denarentzat. Elgoibarko Izarrarena da, eta elkarteak erabakitzen du BARRENEK egin beharrekoa.

- **Elgoibartik kanpo dauden herritarrek gure herriari lotuta mantentzea:** Mundua ere txikiagoa da BARRENI esker. Elgoibartik kanpo bizi diren 382 lagunek jasotzen dute BARREN astero, gure herriarekin izan nahi duten loturari eusteko.

- **Herriko hainbat kazetariri estreinako lana egiteko aukera eskaintzea:** Herriko hamaika kazetariren lehen lantokia eta eskola izan da BARREN.

- **Herri mailako publizitateari ate bat zabaltzea:** la 1.700 merkataritza-etxe izan dira BARRENEKIN publizitatea egin dutenak hoge urteotan. Erakusleho ezin aproposagoa izan da herritarrek haien eskaintzen berri izateko.

- **Anonimoei lekua egitea:** Gainontzeko medioetan sekula iritzi ez ziren herritar asko irten dira BARRENEKIN. BARRENEK ELgoibarko ehunka anonimo edo izengabekori egin dio lekua, eta horiek ere gure herriko historiako protagonista izan dira. “Ikusi zaittut BARRENEKIN” jende askok entzun du hoge urteotan.

- **Mendarori atea zabaltzea:** Proiektua Elgoibarri lotuta eta Elgoibarrerako sortu zen 1992an, baina bidean aurrera egin dugun heinean, Mendaroko atea ere zabaltzen joan dira politikari-poliki. BARREN ELgoibarkoa da, baina Mendaro ere proiektuko parte da.

- **Hori dena euskaraz izatea:** Eta hori dena euskaraz egin dugu; gure hizkuntzan. Eta gure hizkuntzan konpartitu dugu proiektua herriarekin. Elgoibartarrok asko irabazi dugulako BARRENEKIN, irabazi du hainbeste euskarak.

Zer irabazi du, bada, euskarak BARRENEkin?

- **Herriko hedabiderik zabalduena eta eragingarriena euskara hutsean izatea.**
- **Jendeak euskaraz irakurtzea eta idaztea.** Etxe askotan, gainera, eta horrek ez gaitu pozten, BARREN da sartzen den euskarazko aldizkari bakarra; BARRENEko irakurleen % 90ek ez du euskarazko beste aldizkaririk jasotzen.
- **Publizitatea euskaraz egitea.** Elgoibarko merkatarik batek orain badaki zabaldu berri duen denda hori ezagutzera emateko BARREN dela mediorik eragingarriena. Eta badaki euskaraz egitea ez dela oztopo bat.
- **Erdaldunak euskararekin harremanetan jartzea.** Elgoibarko erdaldunak ere estimatzen dute BARREN. Ezin dute euskaldunak bezain erraz irakurri, baina beren eskuetan hartzen dute, erretratuei erreparatzeko bada ere. Batzuek, gainera, euskaraz badakiten seme-alaben laguntzarekin "irakurtzen" dute BARREN. Bestalde, oso-oso prest egoten dira BARRENEko hainbat ataletan irtekeo.
- **Euskara beharrezkoa izatea Elgoibarko berri izateko.** Euskara oso gauza gutxitarako da beharrezkoa, zoritxarrez, baina Elgoibarko hedabide herrikoia eta zabalduenak dioena jasotzeko euskara jakin behar da. Edo euskaldun bat izan behar da aldameanean.

BARRENEkin lortu ez duguna:

Baina sarreran esan bezala, hogei urteotan dena ez da arrosa kolorekoa izan. BARRENEk ere izan ditu bere hutsuneak. Ikus ditzagun batzuk:

- **Proiektua bideragarria izatea ekonomikoki:** Beharbada hau da BARRENE arazorik larriena. Ez dugu lortzen proiektua bideragarria izatea. Hasieran bai, moldatzen ginen hango eta hemengo diruekin, baina azken urteotan defizitarioa da BARREN.
- **Lantoki duina izatea:** Deba ibaiaren kontra dago BARRENE egoitza, eta segituan hasi ginen hezetasun-arazoak izaten. Gero, gainera, usain-arazo larriak ere izan ditugu (zabor-ontziak jarri zituztelako sarrerako atearen parean. Gainera, askok autoa aparkatzen dute erredakzioako ate parean, jendearen joan-etorria oztopatuz.
- **Haserreak edo errezeloak ekiditea:** Hasieratik izan ditugu haserre, errezelo edo kexa batzuk han eta hemen. Alderdi politikoei lotutakoak izan ziren hasieran, eta, gerora, bestelako elkarte eta erakunde batzuekin ere izan ditugu.



ZUZENDARIAK

Alberto Agirreazaldeg
Itziar Agirregomezkorta
Ainhoa Lodoso
Eli Aizpuru
Jon Iñaki Lasa
Asier Orbea
Jasone Osoro
Enrike Bert
Ainhoa Andonegi

KAZETARIAK

Irati Agirreazaldeg
Jon Eugi
Esther Gurrutxaga
Oier Narbaiza
Andoni Iturbe
Eduardo Burgaña
Ainara Argoitia
Asier Orbea

PUBLIZISTAK

Amaia Leiaristi
Nekane Etxaniz
Myriam Aldazabal
Miren Moreno
Maitane Cid
Andoitz Agirregomezkorta
Amaia Erkizia
Eider Iriondo
Eneritz Lazkano
Izaro Etxegibel
Leire Rubio

MAKETATZAILEAK

Maite Rementeria
Edu Sanz
Mikel Comejo
Bea Ansola
Iker Diego
Jaione Unanue
Zaloe Arnaiz

Nork egiten du 'BARREN'?



Egungo lantaldea: Ainhoa Andonegi (koordinatzailea), Ainara Argoitia (kazetaria), Zaloe Arnaiz (maketatzailea), Leire Rubio (publizista) eta Asier Orbea (kazetaria).

Lantalde profesional batek egiten du BARREN astero, eta ez dira gutxi izan hogeitortan BARRENetik pasatu diren langileak. Baina horiek baino gehiago izan dira kolaboratzaileak, hau da, musutruk lan egin duten herritarrak. Herritarrekin eta herriarentzat eginiko astekaria da BARREN, eta laguntzaile horien guztien izenak hona ekarri ez baditugu ere, doala hemendik gure eskerrik beroena.



Irati Agirreazaldeg,
langile ohia

Batxilergoa ikasten ari zela hasi zen Irati Agirreazaldeg BARREN astekarian kolaboratzen, *Gaztia naiz Barren* atalean. Kazetaritza ikasten hasi zen ondoren, eta ikasketak amaitu aurretik hasi zen BARRENEN lanean. Hiru urte egin zituen astekarian, eta beste esperientzia batzuk probatzeko laga zuen lana, 2002an.

“Jendea gertu sentitzea eta egindako lana estimatzea eskertzen da”

Noiz eta nola hasi zinen BARRENEN lanean? Batxilergoa ikasten ari nintzela BARRENEN bazen atal bat *Gaztia naiz barren* izenekoa eta harako egin nituen hainbat ikaskiderekin elkarrizketa eta albisteren batzuk. Gogoan

dut, adibidez, Joxean Artze Poeta elkarrizketatu genuela. Idaztea beti gustuko izan dudanez, Kazetaritza ikasten hasi nintzen. Orduan, EHUko Udako Ikastaroetan egin nuen kazetari lana uda batean, eta gero, ar-

tean Kazetaritza ikasketak amaitu gabe nituela hasi nintzen BARRENEN. Ordurako zazpi urte inguru ziren BARREN martxan zela eta lanpostua lortuta aukera polita izan zitekeela pentsatu nuen.

Nola gogoratzen duzu etapa hura?

Polita izan zen, baina era berean astero aldizkari bat bete behar zaren ardura eta tentsioarekin bizi izan nuen. Baina lankideekin, herritarrekin eta egindako lanekin gustura.

Zer eman zizun BARRENEN?

Esperientzia. Kazetaritzan barrenetik lan egitea zer den erakutsi zidan, eta gerora ere horretan lana egiteko oinarriak hartzeko baliagarria izan zen.

Nolakoa zen herrian bertan eta herritarrekin lan egitea?

Herrian bertan lan egin behar nuela aurrez buruan sartu beharra izan nuen. Izan ere, herritarrengandik gertu egoteak baditu bere alde on eta txarrak. Idatzitakoa ez da beti denen gustukoa, kalean edozein momentutan BARRENEN nintzen..., baina, era berean, jendea gertu sentitzea eta egindako lana eskertzea ere estimatzen da.

Zer eskaintzen dio BARRENEN Elgoibarri?

Orain batik bat web orriaren bitartez jarraitzen dut BARREN, eta El-

goibarrek herriaren eta herritarren berri egunero jasotzeko bide egokia da; batik bat ekitaldi bereziak daudenetan jartzen dituzuen argazkiak eta bideoak ditut gustuko. Teknologia berriak erabiltzen ez dituztenek ere paperekoa ostiralero gustura jasotzen dutela uste dut.

Beste herri aldizkari batzuk ere ezagutu dituzu, *Goiena eta Karkara* esate baterako. Badute antzekotasunik? Desberdintasunik? *Goienkarian* zazpi urte egin nituen eta Debagoieneko aldizkaria izanik bailara osoko gaiak lantzen genituen, beti ere herri bakoitzari tokia eginez. BARRENEN aldean handiagoa da, noski, kazetari, maketatzaile, publizista, kameralari... Paperekoaz eta interneteko atariaz gain, telebista, irratia, publizitate agentzia ere baditu bere baitan, baina ni batik bat prentsa idatzian aritu nintzen, noiz edo noiz telebistarako zertxobait egin arren. *Berrian* ere aritu nintzen eta han Euskal Herri osorako izanik gaiak ere bateko eta besteko landu behar eta horretarako baliagarria izan zen denetarikoa kontuei buruz idazteko. Orain *Karkaran*, Orio eta Aiako aldizkarian ari naiz, BARRENEN antzekoena, beharbada. *Karkarako* lehen zenbakia kaleratu zela 20 urte baino gehiago dira, eta ea BARREN ere heltzen den beste horrenbestera.



*Juan Mari Elustondo,
kolaboratzaillia*

Kolaboratzaillien zerrenda langille profesionalena baiño luziagua da. Hogei urtian herritar asko eta asko etorri izan dira astero-astero BARRENEN informazioa ekartzera, eta hórretako asko idaztera ere ausartu dira noizbait. Modu batian edo bestian, herritar askok lagundu diue proiektuari, eta danei esker, astero-astero hutsik egin gabe argitaratu dogu BARREN. Juan Mari Elustondo da kolaboratzaillia hórretako bat.

“Gauza ona eta biharrezkua da BARREN elgoibartarrentzat”

“Gustura hartzen dogu BARREN; gurian zain-zain egoten dira danak barixakuetan. Danetik etortzen da, eta dana gustutzen jaku. Iritzixak ondo egoten dira, eta guk oso gustura irakurtzen dogu. Gurian buzoi danak beteta egoten dira, eta ez daguanian falta haundixa igartzen da. Euskeraz ondo idatzita egoten da, eta erraz irakurtzen da. Plaentxiakua ikusi izan dot tarteka, eta haura hango euskeran idazten debe. BARRENEN ere tarteka azaltzen da Elgoibarko euskeria, Makazagak eta beste batzuk idatzita, eta gustagarria da.

Lagunak pelota eskolan lan haundixa egitten dogu, eta BARRENEN urtetziak ezagutzera ematen gaitu. Azaltzen ez baldin bada, lanik batere egingo ez bagenu bezela geratzen gera. Urte guztian jarduten dogu lanian, eta gauza ona da BARREN jendiak gure lana ezagutzeko. Pelotiari tarte haundixagua ematia nahiko neuke, baiña badakitt danerako lekurik ez daguala. Resultauak azaltzen dira, baiña apur bat motz geratzen da. Orri gehixago biharko litzakez, eta horretarako dirua bihar da.

Elgoibartarrentzat gauza ona eta biharrezkua da BARREN. Euskeraz ez daukagu besterik eta hau biharrezkua da. BARREN sortu aurretik hamahiru urte inguru ibili nintzan ni Elgoibarko Izarran, eta atera genduan *Txitxilibakio* aldizkari txiki bat. Gauza haundixa ez zan, baiña zeozer egin genduan. Gero beste batzuk sartu ziran, Imanol bera ere orduantxe hasi zan, eta beste erakunde bat osatu zan. Holako entidadiak derrigor bihar dira herrixetan, eta gaur egun gehixago. Gaur bertan entzun dot Wert-ek ezarri nahi duan dekreto berrixa, eta hortik egurra dator. Euskeria ondiokan ez daukagu garantizauta, eta horrek erderia garantizatu nahi dau! Ez dakitt zer pasatuko dan, baiña horren aurrian zeozer egin bihar dogu. BARREN lujo bat da Elgoibartarrentzat, gaiñera dana koloretan dator eta horren atzian diru asko daguala argi dago. Dotoria da. Krisixan gaude, eta dirua danian faltan daguan honetan merkiagua ateratzeko neri ez litzaidake inportako kolorerik gabe jasotzia. Mamia daguen artian, zuri-beltzian ere pozik. Bertako jendia urtetzen da, eta hori da BARRENEN daukan onena”.

Azaletik barrenera

1992ko abenduaren 24an opari berezia ekarri zigun Olentzerok: **BARREN** astekaria. Hogei urte pasatu dira ordutik, eta urte horietan aldaketa asko izan ditu astekariak. Zuri-beltzean hasi zuen ibilbidea, eta testua gailentzen zen irudiaren gainetik. Denborak aurrera egin ahala, garai berrietara egokituz joan da **BARREN**, itxurak garrantzia handia duelako. 847 ale argitaratu ditugu hogei urteotan, eta ondorengo bi orrialdeetan jaso ditugu aldizkariak izan dituen etapa garrantzitsuenak.



0 alea: 92-12-24
Olentzeroren oparia izan zen. Elgoibarko berriak euskaraz zabalteko sortu zuen astekaria Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak.



33. alea: 93-10-01
Kili**BARREN** atala argitaratu genuen estreina-koz, Mendarori eskaintako atala. Gaur egunera arte iraun du atal honek.



46. alea: 94-01-07
BARREN eta Kirol**BARREN** sariak antolatu genituen, 93ko protagonistak saritzeko.



53. alea: 94-02-25
Azala koloretan argitaratzen hasi ginen, eta gehigarri berriak sortu genituen: Kalezulotik baserrira, Txikibarren eta Zaharrak Berri.



100. alea: 95-03-17
Konturatu orduko, kaleratu zen 100. alea.



167. alea: 96-10-11
Kilometroak jaia egin zuten Elgoibarren, eta ale berezia kaleratu zuen **BARRENEK**.



175. alea: 96-12-05
Diseinu berria. Ainhoa Lodoso zuzendariak esan bezala, trajea txiki geratu zitzaion **BARRENI** eta jostunak traje berria egin zion.



10 urte: 02-12-24
Astekariaren 10. urteurrena modu berezian ospatu genuen. Ale berezia kaleratu, eta jaialdi bat egin genuen Herriko Antzokian.



332. alea: 00-09-08
Azaleko irudiak protagonismo handiagoa hartu zuen, eta ordura arte barruan kolore gorrixka zena, horixka bilakatu zen.



500. alea: 04-09-10
Zenbaki borobila berriz ere. Cristina Garcia elkarrizketatu genuen ale hartan, ordura arteko ale guztiak gordeta ziztuelako.



513. alea: 05-01-14
Diseinu aldaketa. Logotipo berria estreinatu eta barrukaldea eguneratu genuen. Irudiak garrantzi handiagoa hartu zuen.



639. alea: 08-01-11
Kolorea iritsi zen. 15 urte egin zituen **BARRENEK** 2007ko Gabonetan, eta kolorez jantzita eta eduki berriei hasi zuen 2008a.



752. alea: 10-09-10
Krisiaren eraginez, ekonomia arazoak hasi ziren. *Ni ere banaiz **BARREN*** kanpaina jarri zgenuen martxan.



787. alea: 11-06-17
Astokaka jokia antolatu genuen, astekariarentzako dirua lortzeko.



847. alea: 12-12-14
20. urteurrenako ale berezia argitaratu genuen.

Hogei urteotan makina bat etapa bizi izan ditu BARRENEK. Bere bidea egin du beti, eta orain ere bere bidetik darrari, baina beste egitura baten barruan sartuta dago: TOKIKOM. Marka bateratua sortu zuten BARREN astekariak eta Topagunean (euskara elkarten federazioa) bazkide diren aldizkariak 2010ean, eta marka hori elkarte bihurtu dute 2012an. Tokiko aldizkarien elkarlana eta talde izaera sustatzeko sortu zen TOKIKOM. Tokiko hedabideen sektorea irudikatzen duen ikurra da, eta euskarazko herri aldizkariak komunean dituzten ezaugarriak batzea da helburua. Topaguneko hedabideak anitzak dira maiztasunari, formatuari eta itxurari dagokionean, eta, era berean, anitzak dira, askotariko iritziak jorratzen dituztelako eta irakurleak desberdinak direlako. Baina badira guztiak komunean dituzten ezaugarriak: hurbileko informazioa lantzen dute, gai orotarikoak; masiboak edo unibertsalak dira, hau da, populazio osoarentzako lantzen dute informazioa. Aniztasunari uko egin gabe, talde izaera ere badutela gizarteratzea, eta, guztiok batuta, 220.000 irakurle baino gehiago izateak ematen duen indarra hobeto baliatu ahal izatea ere bada TOKIKOMen helburua.

OIER NARBAIZA, estilo liburuaren egilea



BARRENEKO etapen barruan ezin daiteke albo batera laga estilo liburuaren egin genuen garaia. BARRENEKO hizkuntza eta tratamendu periodistikoaren arautzen dituen txostena da estilo liburuaren. 2010eko martxoan gauzatu zuen dokumentu hori Oier Narbaizak, eta horixe erabiltzen dute gaur egungo kazetariak.

“Herri komunikabide batek ez du ahaztu behar gertukoa dela”

Zerk bultzatuta erabaki zen BARRENEKO estilo liburuaren egitea?

Diseinuari eta gaiei garrantzia eman zaien moduan, idazkuntzari ere garrantzi berezia eman behar zitzaioela ikusi genuen lan-taldean. Zalantza gehiegi sortzen ziren erredakzioan, handiegiak behar bada, denbora laburrean konpontzeko: "BARRENEKO zelan idatzi beharko genuke korrika ala saltaka?", batek; "atxintxika, bes-tela?", bigarrenak; "Hori ondo dago? Nire amamak atxintxika esaten du, barren!", hirugarrenak. Eztabaida amaigabeak. Horrez gain, proiektuaren inguruko helburuak eta balioak jasotzea beharrezkotzat jo genuen, batez ere kazetari etorri-berriek non zeuden jakin zezaten. Bide batez, hizkuntzarekin eta kazetaritzarekin zerikusia duten arau eta gomendioak sartzea egoki ikusi genuen.

Zer izan da estilo liburuaren BARRENEKOtzat?

Kazetariari eguneroko lana errazten dion tresna izan beharko luke, zalantzak argitzeko eta proiektuari koherentzia eta sendotasuna emateko. Nik uste dut estilo liburuaren egin genuenetik akats gutxiago dagoela BARRENEKO eta idazkuntza, oro har, koherenteagoa dela. Horrek guztiak sendotasuna ematen dio proiektuari. Baina hori orain aldizkarian zabalduzatenok baloratu beharko duzue egunerokoan zenbateraino den erabilgarria.

Zeintzuk izan ziren traba handienak?

Estilo liburuarekin hasitakoan, gero eta gauza gehiago sartzea pentsatu genuen: Elgoibarko leku izenak, eskutitzen atalari buruzko irizpideak, publizitatea kontratatzekeko irizpideak, herriko hizkeran idazteko argibideak eta abar. Gauza gehiegi pilatu ziren, eta lanari forma eman behar zitzaion. *elgoiBARRENE.net* atarirako ere jarraibide batzuk sartu behar genituela erabaki genuen azken

momentuan eta horretarako erreferente askorik ez genuen topatzen.

Non oinarritu zinen estilo liburuaren egitea?

Batez ere *Berria* eta *Egunkaria*-ko estilo liburuetan. Horiek, baina, herri aldizkari batera egokitu behar ziren, astekari batera, Elgoibarrera. Goienera komunikazio zerbitzuen estilo liburuaren oso baliagarria izan zitzaigun, eta baita Andres Gostin kazetariaren emandako aholkuak. Jesus Mari Makazagaren Elgoibarko hizkeraren doktoretza tesitik aditza-formak eta hiztegia hartu genituen. Makazagak eta Andres Alberdik emandako aholkuak ere aintzat hartu genituen.

Euskara kontuz gain, zaindu beharreko balioei ere erreparatzen die estilo liburuak. Herri komunikabide baten ikuspuntutik zeintzuk dira errazten ahazten diren balioak?

Herri komunikabide batek ez du ahaztu behar gertukoa dela, herrikoia, eta irakurleak era askotakoak direla. Beraz, euskararekiko konpromisoa, autonomia, pluraltasuna eta ulergarritasuna ezinbesteko balioak ditu. Hori ezinbestekoak dira.

Elgoibarko hizkerari atal berezia eskaintzen dio estilo liburuak. Nola zaindu beharko litzateke euskalkia eta euskara batuaren arteko oreka?

Elgoibarko hizkeran idazteko modua zehaztu genuen, baina ez noiz idatzi batuan eta noiz Elgoibarko hizkeran. Gauza bat hizkuntza idatzia da, eta beste bat, ahozkoa. Alfabetatu gabeko euskaldunei seguruenik herriko hizkeran irakurtzea errazagoa egingo zaie, eta gazteek hor izan dezakete zer ikasi. Euskara batuak beti izan behar du lehentasuna, argi dago. Hala ere, Elgoibarko hiztegiak eta sintaxi-egiturak sartu behar dira BARRENEKO.



ALFREDO ETXEBERRIA Elgoibarko Udala

Zorionak denoi! Elgoibarko Izarra elkar-teak 50 urte beteko ditu 2013an. Elkartea lkastola babesteko sortu zen, eta euskaldu-non kultura eta euskara izan du oinarri eta helburu. Hori horrela, BARREN astekaria sortu zuen elkarteak duela hogeiei urte eta Olentzeroren bitartez heldu zen gure etxee-tara.

“..., ez gatzoz komunikabideen lana eba-luatza, ez baita hori gure egitekoa. Bai orde, horiengan elgoibartar xeheak aurkitu-ko ez duen informazio iturria betetzera. Hauxe eta ez besterik da elgoibARREN herri astekariaren nahia”. Horrela zioen abendua-ren 24ko 0 zenbakiaren editorialak. Bestalde, bertan, idatziz eta hitzez agertzen ziren pertsona guztien esanetan euskararen inguruko ilusiozko proiektu bat antzematen zen.

“Zergatik babestu BARREN” galderari erantzuteko eskatu didate, eta hauexek dira bururatu zaizkidan ideiak:

Bideragarritasuna eta iraunkortasuna lortzeko nahi izaten dugu babesa. Dagoeneko, irakurleengan oinarritutako babesa lortu da; etxe guztietan jasotzen da, irakurle mota ugari daude... Baina horretara-ko, erakunde aldetik babes ekonomikoa izan du, eta hau ezinbesteko zutabe bihurtu da. Erakundeengandik jasotzen den babes ekonomikoa euskararen erabileran eragitera bideratu beharko litzatekeela iruditzen zait, eta ez editorialean ulertzen denaren arabera, informazio iturri bat finantzatzera. Heldutasuna lortu ahal, erakundeekiko menpekotasuna gainditu beharko luke, eta modu horretan, euskararen erabileran eragi-tera bideratutako beste egitasmo, ekintza eta proiektu batzuei aukerak eman.

Behin irakurlearen babesa lortuta, egon-kortasun ekonomikoa ere lortzen saiatu behar dugu. Nolako izan behar luke irakur-leen babesak, honen bitartez, bideragarrita-suna eta iraunkortasuna bermatzeko?

egiteko ezinbestekoa dugu publizitatea. Ezinbestekoa dugu zuen babesa, eta hogeiei urtean handia BARREN hori ere ekarri dio herri honi. Eta inolako harrokeriarik gabe esan behar dugu BARREN de-n denontzako da. Horregatik espero dugu aurrerantzean ere elkarri laguntzen jarraituko dugula.

ARKA ZAPATA-DENDA / ABURUZA SAGARDOTEGIA / AGIRRE HARATEGIA / AGIRRE SASTRERIA / AGME / AGRUPA-ETA LOGOPEDIA / AINHOA FISIOTERAPIA / AISIAKIN / AITTOLA ZAHAR NEKAZAL-ETXEA / AITZ BELTZ TABERNA / AINDEGIA / ALBOAN INMOBILIARIA S.L. / ALCORTA FORGING GROUP S.A. / ALDAPA TABERNA / ALDATZE / AL-DEKORAZIOA / ALTOZAKO JAI BATZORDEA / ALTZOLAKO URAK / ALUVITEL / ALVAREZ BALZOLA S.L. / ALVA-BERNA / AMONDARAIN SAGARDOTEGIA / AMPARO ETA INMA HARATEGIA / AN INTERIORES / ANAIK S.L. / ANBO-ARAK / ANE DEKORAZIOA / ANGEL ITURGINTZA / ANGELA ZABALETA AIZPITARTE / ANGULAS AGINAGA / ANOTA SA-RALAR KIROLAK / ARAMBARRI AHOLKULARIA / ARANBARRI GRUAK / ARANBARRI GRUTA ETA PLATAFORMADUN EDICIONES C.B. / ARBOLETA JATETXEA / ARE GARAJEA / ARGI PINTURAK / ARGIN / ARIN / ARKAUZ FERRETERIA ZENTROA / ARRAGUETA OKINDEGIA / ARRASATE ARETXABALETA BHI / ARRASATE KOMUNIKABIDEAK / ARRATE OAK / ARTEBAS S.L. / ARTEGI ELEKTRAGAILUAK / ARTEMAN KOMUNIKAZIOA Koop. E. / ARTESZENA / ART-FRUIT / OLAK / ASTONDOA S.A. / ATERPE TABERNA / ATSEDEN KIROMASAJEA / ATTREZO / ATXURI BASERRIA / AUBIXA / AR S.A. / AUTOZERBITZUA ELKAR/ AZIBAR IRAOLAGOITIA AROZTEGIA / AXIER, S.L. / AYERBE / AZALEA / AZITAIN AS / BANCO DE VASCONIA / BANKOA / BAROLA AUTOAK / BARRIN AZOKA / BARRUTIA HARATEGIA / BART AKA-100 PLAENTXI / BAZAR TXINATARRA / BBV / BECE IZOZTUAK / BEGIRISTAIN SAGARDOTEGIA / BEITIA ARRIOLA FI-BENTA SAGARDOTEGIA / BEAZA TXATARRERIA / BERBAZULO / BERDIN S.A. / BERGARA PIEL / BERISTAIN EDAN-TABERNA / BIDE ZENTRO PSIKO-MEDIKOA / BIDETARTE SAGARDOTEGIA / BIENA AROZTEGIA / BIGAN / BIKAIN DENDA / BOLINTXO OKINDEGIA / BOUTIQUE DEL PAN / BREAKING MOLDS S.L. / BROCHADOS Y PLANEADOS AL-S AITONA / CAFES BAQUE / CAIXA D'ESTALVIS DE CATALUNYA / EGONDO / CAMARA DE LIBRO EUSKADI / CARA-ARTE DEKORAZIOA / CC.OO. / CEAM AKADEMIA / EIBARKO ZENTRO MEDIKOA / CENTRONET TINDATEGIA / CHI-EIENZAKO ARROPA DENDA / COMUNICACION MEDIATRADER S.L. / DEBEGESA BALIOAK / GINEKOLOGIA ZERBITZUA UJE Y OTRA C.B. / DAMKAR'T AKADEMIA / DANAIS NOVIAS / DANKA MULTIMEDIA / DANOBAT GROUP S.COOP. / EBAKO UDALA / DEBAPE INPRIMATEGIA / DEBAPE UDAL EUSKALTEGI / DEBEGESA / DEBEMEN / DEITEL / DELTE-DHL / DIAMIR / DIS ART DISEINU ESTUDIOA / DISART / DISEDE / DOIMAK / DOMINGO AIZPIRI S.A. / DOMINGUEZ EA / EAJ - PNV / EAS VELE / EATE JATETXEA / EB / ECCO FORMACION / ECENARRO / ECUADOR VIAJES / LEKUE-MOTOR / EIBAR OSASUNDEGIA / EIBARBUS / EIBARKO ARMERIA ESKOLA / EIBARMOTOR / EIBARTEL / EINBIOU ELEKTRIZITATEA / ELENA ILEAPAINDEGIA / ELGOIBAR IKASTOLA / ELGOIBAR INMOBILIARIA / ELGOIBAR PP / EL-D HAURRESKOLA / ELGOIBARKO HERRI BATASUNA / ELGOIBARKO INDUSTRIALDEA / ELGOIBARKO LANBIDE HE-STALEDGIA / ELGONET / ELGOYMA / ELKAR ARGITALETXEA / ELKARRI / ELORZA AHIZPAK / ELURU KETA SAGAR-UURDAITEGIA / ERMUKO UDALA / ERNIO S.L. / EROSKI / EROSKI BIDAIAK / EROSO / ERREFORMAK / NORMAN S.L ERIAK / ESTUDIO SIGLO XXI / ESTUDIOS ARRILLAGA / ETB / ETEO KOOTE / ETO MOBIL, S.L. / ETXABE FERRETE- / ETXEZURI SAGARDOTEGIA / EUE / EUSKADIKO KUTXA / EUSKAL EKERRA / EUSKAL HERRITARROK / EUSKAL-EXMAHE S.L. / EZENARRO AROTZERIXIA / EZKER ABERTZALEA / EZKER BATUA BIDEAK / EZKURRA MASAJIS-FOTERO OKINDEGIA / FOTO AURUPA / FOTO JAUNA / FRALLE HARATEGIA / G&M JANTZIDENDA / GABI JATETXEA / TUAK / GARAI HARATEGIA / GARAJE EGANA / GARBAPEN PROIEKTUAK S.L. / GARATE ESTANKOAK / GARATE JAN-A / GAZTE INFORMAZIOA / GAZTELU ARROPA KONPONKETAK / GAZTELUPE TABERNA / GELAKO ALTZARI DENDA ZAK / GINEKOLOGI KONTSULTAK / GOKELA / GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA / GITXEGI ELKARTEA / GLAS CON-MEK S.KOOP / GONHE SISTEM / GOKI ERREFORMAK / GORBEA JATETXEA / GOROSABEL ELEKTRIZITATEA / GO-MATETXE / JANTZITARRA / GRUAS PANA / GRUAS URASANDI / GTE PROIEKTUAK / GUADALUPE GARCIA VALIENTE / PRESS / GURBUTXAGA HARATEGIA / GURUTZETA SAGARDOTEGIA / GUTIERREZ JOSTUNDEGIA / HAIR'S ILEAPAIN-Z / HIDRAULIK RING S.L. / HIERROS BEAZA / HIFER COSTA (NETTO) / HIRULAN S.L. / HISPANIA SEGUROS / HIZ-MENDARRO / ITOE B. / IBAI GIMNASIOA / IBAI-GAIA / IBAI-ONDO ERRETEGIA / IBAIZU / IBAMAR ITURGINTZA / IBAR-IAK / IDOIS EDERGINTZA / IES ELGOIBAR / IRREITURRE BHI / IGNACIO ZULOAGA INSTITUTUA / IHARDUN MAQUI-NAZIO BEZIRATU MUSIKA ESKOLA / INDURAIN Y ASOCIADOS S.L. / INDUSTRIAS METALA S.L. / INDUSTRIAS INTXAUSTI, S.L. / ION GIZON ETA FAKUMENTEZAKO MODA / IOSU BITZIDENDA / IPINTZA PINTURAK / IPINTZA SA-S.L. / IRIONDO ALTZARIAK / IRIONDO KIROLAK / IRIONDO S.A. / IRIONDO TABERNA / IRIS SPORT / IRISH PUB / IRRI-RAIN Y ASOCIADOS (NEUR-LUR) / ITURRI TABERNA / ITZALA EDERGINTZA / ITZIAR SARASKETA ITZULPENAK / IU / IA / JAKIN INFORMATIKA / JARRAI / JASONE ZERBITZU GRAFIKOAK / JAUJA KIROLAK / JAUREGI INPRIMATEGIA / LA URDAITEGIA / JOSE LUIS MENDEZ IGLTSETRITZA / JOSE MARI ARANZAMENDI "KATEI" / JOSE PINTURAK / JO-EKOLA / JULENE / KAI JATETXEA / KAIA TABERNA / KAIROS / KALA LORADENDA / KALAMUA GURASO ELKAR-KATEBI LIBURUDENDA / KATIUSKA TABERNA / KEBAB / KEMEN BELAR-DENDA / KENSIGTON / KEY AKADEMIA / OA, S.L. / KLINIKA KORTAZAR / KLOON / KOKATU, S.L. / KOMUNIKADOS / KOMUNIKAZIO BIZIAGOAK, S.A.L / KON-KULTUR ATELIER / KUTXA / LA BERMEANA / LA BODEGA ERRETEGIA / LA CAIXA / LA SALLE / LAB / LAGUN ARO-ATEGIA / LANKI LIBURUDENDA S.A. / LANKIDE AURREZKIA / LANUSTA / LARRANAGA AUTOESKOLA / LARRARTE-OR / LAZKANON GARRAIOAK / LAZTANA / LEAGI CAMPING / LEIGAR / LEIRE JANTZIDENDA / LEIZABE ELEKTRARTE-LETE / LETE NEKAZAL TRESNERIA / LOS MOTOR / LIDIA / LIG / LIRAIN / LIZARDI AUTOMOZIOAK / LIZARRA KAN-QUEDA HNOS, S.A. / LORTU ASESORIA / LOS HERMINIOS TABERNA / LURRA / LUVIK ZAPATADENDA / LUZAIDE JA-ADIGAN'S IRISH PUB / MAGU'S ILEAPAINDEGIA / MAHASTI URDAITEGIA / IBAMAR / MAITANE ESTETIKA ZENTROA / ANAIA MEKANIZATUAK / MANDIOLA S.L. / MANU MORA / MANZISIDOR ANAIK / MAPFRE / MARA MARA MENDI-SANS BIDAIAK / MARTINEA NEKAZAL TURISMOA / MARTIRIKORENA TALE / MASER S.A. / MASUMIS MODAK / MA-INGLES (MEDIASOL 2000 / MEDIOLANUM / MEKANOSA / MENDANETA ALTZARIAK / MENDAROKO EAJ / MENDA-DIZABAL SAGARDOTEGIA / MERINO ZAPATAK / MERINO-YESTE IRUDI ENPRESA / MERKATU PLAZAKO TABERNA / A S.L. / MOBOKIT / MOMA JANTZIDENDA / MONDRAGON UNIBERTSITATEA / MORKAIKO / MORROSKILLO / MOVE-MUTUAUENIR MUTUA S.R.P.F. / MUXI KIROLAK / MYCRO SYSTEM / MYL / NAHIA ILEAPAINDEGIA / NANARRI / NA-OAK / NOA EDERGINTZA / NORA BASTIDA HORTZ KLINIKA / NORBERTO ZABALA PINTURAK / NORFO S.L. / NOSKI-TADENDA / OIZMENDI TABERNA / OJMAR, S.A. / OKIL BELTZAK / OLAIZAGA KIROLDEGIA / OLALDEA INDUSTRIAS / OR / OPARI ON / OPEL ANALSA / ORAIKO DISKO PUB, S.L. / ORAIKO GOIKOA / ORAIKO-LANBROA / ORBEA KAFE-ENDA / OSORO OINETAKOAK / OSORO URDAITEGIA / OSTARKU / OTATZA SAGARDOTEGIA / OTEGI SAGARDO-TEA / PAGOERROTA ITURGINTZA / PANA GRUAK / PATXI HARATEGIA / PATXILLO IGLTSETRITZA / PAULATXE S.L. / PE-ANDEGIA / PILAR IKASTETXEA / PILON BURGER / PIL-PILEAN EUSKARA ELKARTEA / PINOTXO OINETAKOAK / PIN-POL-POL / PP / PRD INFORMATIKA / PROM. Y CONST. AIZKORRI, S.L. / ARGINETA S.L. / PROMOZIOAK / PROTESI-A SAIZAR, S.L. / JATETXEA / REVERT AUTOBUSAK / REY QUIROGA-HERTZ / REZOLA GASOLINDEGIA / REZOLA SA-ADUTEGIA / S. KLARA AUTOMOZIOA / S.G.I. BILBAO, S.A. / S.L. INDUSTRIAS OLALDEA / SAGARMINA / SAGARZA-RO JATETXEA / SAN ROKE KAFETEGIA / SANTA KLARA AUTO KONPONKETAK / SANTANA DHARMA YOGA ELKAR-GARDOTEGIA / SEAT MOTOR / SEGUR-ARNO S.L. / SEGUROS BILBAO / SEMANA DAS LETRAS GALLEGAS / SER-AN / SOLOZABAL AUTOESKOLA / SOMOA BURGEO ARRANDEGIA / SOMOS ASESORES S.L. / SONIA DANTZA ES-ELEKTRIZITATEA / TAES TABERNA / TALASOTERAPIA ZELAI / TALLERES ALBE / TALLERES TXIMI / TALLERES ZAIL-BERNA / TICO RICO / TIK TAK / TOKI-ALAI JATETXEA / TOKIKOM E.M. / TOLETXE / TOLETXEBERRI, S.L. / TOPAGU-ETA NEKAZAL ZERBITZUA / TX4 FITNESS / TXANKAKUA / TXARKUTERIA DORI / TXARO ILEAPAINDEGIA / TXARRIDU-DEA / TXINTXO GESTION INMOBILIARIA / TXIRIBOGA TABERNA / TXIRRISTAKA / TXOHAN KEBAB / TXURI TAILERRAK ETXE AGENTZIA / UNED UNI EIBAR-ERMUA BHI / UNLEI S.L. / UNTZON TABERNA / UNZUETA GARRAIOAK / URAK-IA / URKIOLA / URKUNDE S.A. / URNOBITZA S.L. / UROLA LANBIDE HEZIKETA / URRATEGI SUKALDEAK / URRES-TEGIA / UZTARGI / UZURI OPTICA (VALENCIAGA JANTZIDENDA / VALUES AND LIFE STYLESW S. / ECUADOR BI-ABALA AROZTEGIA / ZABALA ERREFORMAK / ZABALA FRUTADENDA / ZABALA SAGARDOTEGIA / ZABALA URDAI-O SALAZAR / ZERBITZU INTXAURRAGA / ZESTOAKO UDALA / ZEZEN-BIDE AUTO-ESKOLA / ZIARDA HARATEGIA / T / ZUBITRONKI S.L. / ZUBIZARRETA INSTALAZIOAK / ZULAIKA ANAIK / ZUR TA LUR / ZURE ALDE / ZURICH

kili barren

MENDARO, BARRENETIK

1993ko urriaren 1ean jaio zen KiliBARREN Mendarorako hilabetekaria, Anton Zubiaurre (EAJ) alkate zen garaian. BARRENEk Mendaroko albisteei buruz euskaraz informatzeko sortu zuen agerkaria zen, Elgoibarko Izarra kultur elkarteak Mendaroko Udalak emandako diru-laguntzari esker argitaratu zuen hilabetekaria. Urte askotan herritarrek eurek eutsi zioten proiektuari, harik eta 2002an BARRENEko lantaldeak bere gain hartu zuen arte hilabetekariaren gaineko ardura.



KiliBARRENEko hasierako lantaldeko sei lagun, Trinitaten.

Hemeretzi urte joan dira BARRENEk Mendarorako sortu zuen KiliBARREN gehigarriaren lehenengo alea argitaratu zuenetik. Mendarorrek mendaroarrentzat sortutako euskara hutseko hilabetekaria zen, eta aurreneko ale hartan ageri den argazkiari erreparatuta, bistan da ilusioz heldu ziola erronkari orduko “kazetari” taldeak. Hamar lagunek osatu zuten hasierako lantaldea, eta haietako sei ageri dira aurreneko alerako Trinitaten egin zuten argazkian: Maria Longarte, Aingeru Gallastegi, Haritz Goikoetxea, Ziortza Urbietza, Iraide Loiola eta Garbiñe Zabala. Horiez gain, Alaitz Vives, Aitor Etxeberria, Mikel Garate eta Joseba Etxeberria batu ziren proiektu hartara. Haietako batzuekin hitzordua egin du BARRENEk hasierako pauso haiek gogora ekartzeko. Izan ere, urte asko joan dira ordutik, eta gehienek oroimen lauso batzuk baino ez dituzte gordetzen.

“Trinitaten atera genuen argazkiarekin hasi zen dena”, esan du Alaitz Vivesek. Maria Longartek gogoan dauka lehenengo udaletxe zaharrean (gaur Ludoteka dagoen lekuan) egin zen batzar batera deitu zituela Alberto Agirreazaldegi BARRENEko zuzendariak, eta Joseba Etxe-

berria Mendaroko orduko kultur teknikaria ere hantxe zela, Mendaroko Udalaren izenean. Joseba berak hartu zuen herrian antolatzen ziren ekintzen berri eman eta BARREN eta KiliBARREN osatzen zutenen arteko lotura izateko ardura. Mendaro ezagutarazteko aukera polita iruditu zitzaizkien guztiei, eta halaxe hasi ziren; idazteko zaletasunak eta kulturarekiko eta euskararekiko ezinegonak bultzatuta (Maria eta Alaitz Urruzuno Literatur Sariketa irabazitakoak ziren ordurako, Iraidek bertsoak idazten zituen eta Garbiñe kazetaritza ikaslea zen, esaterako). “Nire motibazio nagusia euskaltzaleatasuna izango zela pentsatzen dut, euskararen alde zerbait egiteko gogoia. Nire ustez, BARREN euskaraz izan ez balitz, nekez batuko ginatke horrenbeste jende”, adierazi du Haritz Goikoetxeak. “Guk eskola garai osoa egin dugu euskaraz, eta ez genuen pentsatu ere egiten euskara ez zen beste hizkuntza batean idazte. Naturala horixe zen”, gaineratu du horren harira Vivesek.

Guruzpe kultur elkartearen bueltako gazteak ziren denak, Mendaron eragile izan zirenen eta izango zirenen seme-alabak haietako zen-



bait, eta Iraidek garbi dauka etxean jasotako kulturarekiko ezinegon hori izan zutela denek ere KilibARREN proiektuari heltzeko bultzada nagusia: “Gure gurasoak hamaika saltsatan ibili dira beti. Nik aita beti ezagutu dut udaletxean ez bada ikastolan, eta ikastolan ez bada, santsa eskean. Eta hori jaso dugu guk denok”.

Mendaro ezagutarazteko ere balio zezakeen, eta halaxe jaso zuten Mariak, Alaitzek eta Iraidek sinatutako aurreneko zutabearen ere: “*Ezkutuan, isilean egon ordez, gure nortasun eta izakeraren berri azaltzeko ideia aproposa da. Badirudi, eta askoren ustez horrela izango da, gure herria mendi artean dauden lau etxe eta mila eta lauhun biztanle ingurutara mugatzen dela. Talde honentzat, ostera, gure “herritxoa” hori baino zerbait gehiago da*”. Mariak garbi dauka: “Baginela, Mendaro badela, adierazteko beharra sentitzen genuen. ‘Non dago Mendaro?’ galderari ‘Deba eta Elgoibar artean’ erantzutera ohituta geunden. ‘Zenbat taberna daude Mendaron?’. Hori gaur egun ere bada”. “Herri txikien nolabaiteko konplexua geneukan”, gehitu du Alaitzek.

Eta hasi ziren, eskarmentu gehiegirik gabe, baina “ilusio handiz”. Baliabideak ere urriak ziren sasoi hartan. “Kamara bakarra zegoen, eta bera Elgoibarren. Institutura joaten ginenean joaten ginen bila, arratsaldean argazkiak egin eta biharamonean entregatzen genuen, argazkiak errebelatzeko”, oroitu du Alaitzek. Elkarrizketak, albiste laburrak, aspaldi kontuak, argazki zaharrak... hainbat atal zituen hilean behingo orduko KilibARRENEK, eta Txirristaka tabernan egiten zituzten bileretan erabakitzen zuten zer gai landu, nola eta zeinek idatzi. “Librean aritzen ginen gu. Guretzako ez zen lana, idazteko aukera bat zen. Beti gustatu izan zaigu idaztea. Nik gero beste bide bat hartu nuen, baina gaur ere gehiago irakurtzen dut *Argia* ekonomiaren inguruko berriak baino”, dio Mariak. “Giro polita zegoen gure artean”, bota du bat-batean Iraidek.

Gai atenporalak lantzen zituzten bereziki. “Gu garai hartan Institutuko ikasleak ginen, eta ez genuen albisteak bilatu eta sortzeko gaitasunik. Herriko abadea, margolaria... gehiago zen herriko ‘personaia’ ezagutaraztea”, zehaztu du Alaitzek. Izaskun Jauregi txistularia, Jose Urain Bustinalde elkartekoa, Juan Arriola musikaria, Joseba Perez sendagilea, Aitor Etxeberria margolaria, Aitor Goikoetxea futbol jokalaria, Jabier Urbietta bertsolaria, Juan Mari Larrañaga udaltzaina, Juan Mari Landa sukaldaria, Andoni Egaña pilotaria... Bizilagunak zituztenak

bihurtu zituzten protagonista, gertuko jendea, zer kontatua bazuten mendaroarrak. Eta haietako elkarrizketatu batzuekin izandako solasaldiek markatuta laga dituzte. Mendaron ikastola sortu zuten garaian zuzendari kargua bete zuen Iñigo Sorazu elkarrizketatu zuten behin, esate baterako; euren orduko matematika irakaslea zen Sorazu, eta ondo gogoan dute elkarrizketa hura. Baita Errementari baserriko Hilario Arakistaini egindako elkarrizketa ere. Hark elkarrizketan erabilitako esamolde batzuk buruan iltzatuta gelditu zaizkie Alaitz, Maria eta Iraideri, eta aitortu dute gerora ere makina bat bider erabili dutela, esaterako, lehenengoz hari entzundako “bizimodu nekosua” esapidea.

Mendaroko historian mugari izan diren gertakari berri ere eman zuten. Mendaroko Udalaren hamargarren urteurrenaren berri adibidez. Debako Garagartza auzoak, Mutrikuko Azpilgoetak eta Plazak eta Elgoibarko Mendarozabalek 1930. urtean bat egiteko egin zuten lehenengo ahaleginetik hasi eta 1983ko abenduaren 30ean Mendarok, Mutrikuko Udalak jarritako oztopo guztiak gaindituta, independentzia lortu zuen arteko kontakizuna egin zuten ale batean.

“Gu garai hartan ez ginen kontziente halako aldizkari bat argitaratzeak zer lan eskatzen duen. Gerora, kazetaritza ikasten hasi nintzean konturatu nintzen nolako lana eta zenbaten esfortzua dagoen hor atzean. Gero jabetu nintzen proiektu oso bat dagoela aldizkari baten atzean”, adierazi du Alaitzek.

Kimu berriak

Unibertsitatean hasteko garaia ere iritsi zitzairen gazte haiei, eta nahi gabe ere, Mendarotik urrundu ziren haietako batzuk. Eten antzeko bat izan zen haietako askorentzat, eta eten hori igarri zuen KilibARRENEK ere. Baina etorri ziren berriak, eta, ez, KilibARRENEK ez zuen orririk galdu. Mariak, Iraidek eta Alaitzek aurreneko zutabe hartan erabilitako esapidea baliatuz, iritsi zen kimu berriak erretzeko sasoa ere. Aitziber Gurrutxaga, Zigor Txurruka eta Oihana Tarragalek hartu zieten erreleboa hasierako lantalde hartako batzuei. Denborak aurrera egin ahala, baina, Oihana Tarragualengan jausi zen arduraren zama. “Ilusioz hasi nintzen, baina bukaerako lana ere bazen, eta koadrilako Elena Zubiaurre hasi zen tarteka niri laguntzen. Jasone Osoro eta Ainhoa Lodoso BARRENEKO kazetariekin batera erabakitzen nituen gaiak garai hartan”



Kazetaritza ikaslea zen ordurako Tarragual, eta aitortu du KILIBARRENEK ikusi eta ikasitakoa baliagarria izan zitzaioela gero bere ibilbide profesionalean. Urte asko igaro direla dio Oihanak eta gainerako en antzera memoria lausoa du berak ere, baina ia hitzez-hitz gogoratzen du, adibidez, Martin Ulazia aitona KILIBARRENERako kontatutako pasadizoa. Idatzitako artikulua guztiak, bera ibili arteko KILIBARRENEK ale guztiak, gurasoen etxeko ganbaran gordeta dituela nabarmendu du. “Aitak sarri esaten dit zertarako gordetzen ditugun!”.

KILIBARREN, galtzeko arriskuan

1997. urteko bukaerara arte eutsi zion Oihanak proiektu hari, baina ikasketek hala behartuta, aldizkarian kolaboratzeari laga zion egun batean. “Niregatik denbora gehiagoan ere jarraituko nuke, baina gero eta zailagoa zait hilero-hilero ardura hau hartzea. (...) Momenturik onenak hasierakoak izan ziren. Ilusio gehien hasieran izaten da. Gero, denborarekin justu xamar ibiltzen zara askotan eta ilusioa ere galtzen duzu, baina beti interes guztia ipini dut nire lana egiten”, adierazi zuen 1998ko alerako BARRENEK egindako zeharkako elkarrizketan.

Koadrilan egiteko lana

Tarragualak laga ostean, galtzeko arriskuan ere egon zen Mendarorren zako hilabetekaria, harik eta 1998ko urtarilean herriko mutil talde batek proiektuari heldu zion arte. Andoni Zulaika, Ander Zulaika, Ibai Idoeta, Jon Larrañaga, Josu Motriko, Anibal Cotrina, Iñigo Lazkano, Unai Muñoz, Ruben Rios, Egoitz Horrillo, Jurdan Ezenarro eta Xeber Loiola institutuko ikasleak ziren, kazetaritza munduan eskarmenturik gabeak, baina ez zeuden Mendaroko albisteak euskaraz irakurtzeko zuten aukera galtzen lagatzeko prest. Galdekatutako inork ez dauka ondo gogoan nola hasi ziren, baina uste dute, hein batean, ikas-bidairako dirua lortze aldera hasi zirela eta bi urte inguru iraun zutela. “Beti presaka ibiltzen ginen eta nahi-

koa burukomin eman genion guk Jasone Osorori. Ez genuen golpe handirik jotzen”, aitortu du Iñigo Lazkanok. Bi urte pasa egin zituzten kazetari gazte haiek Mendaroko albisteak batzen, eta Alain Ulaizak eta Joseba Etxeberria Kultura teknikariak hartu zieten erreleboa. Biak bakarrik ibili ziren aldi batez, baina berehala batu zitzaizkien Enez Ezenarro, Lurdes Rodriguez eta Edurne Olazabal gazteak.

2001eko irailean (BARRENEK 377. alean) Ainhoa Andonegi Elgoibarko kazetariak, BARRENEK gaurko koordinatzaileak, hartu zuen gero hilabetekariaren ardura. “Nire aurreneko kazetari lana izan zen; ilusio handiarekin eta oso gustura egin nuen lana, eta jende interesgarri asko ezagutzeko aukera eman zidan, gainera. Hilean 16.000 pezeta ordaintzen zidaten, eta diru asko zen hori niretzat”, aitortu du.

Profesionalizazioaren aroa iritsia zen, eta hori produktuan ere nabaritu zela adierazi du Alaitz Vivesek. Bat datoz Vivesekin batera hitzordura agertu direnek ere. Mendarok leku bat egin du euskarazko prentsa idatzian eta baita Interneten ere, eta produktua “gustura” hartzen dutela aitortu dute guztiak. “Oso gustura ikusten ditut Mendaroko argazkiak www.elgoibarren.net webgunean ere”, dio Mariak.



SONIA GARCIA, MENDAROKO ALKATEA



Zorionak, BARREN! Hogeitun urtean gure artean egon eta gero, mendaroar askok egin diogu txoko bat etxean. Herrian ez dago beste aldizkaririk eta ostiraletan ehunka pertsonen eskuetara iristen da, eta horrek asko motibatzen du. Zahar eta gazte, neska eta mutil, euskaldun zein erdaldun denok hartzen dugu BARREN eskuetan. BARRENEK esaten digu astero zeintzuk diren gure herriko protagonistak, gure herriko bizitzaren erreferentzia eta ispilua bihurtu da BARREN. Jendeak gustura irakurtzen du, herri mailako informazioa herritarrei emateko jaioa delako. Gainera euskararen normalizaziorako ere ezinbesteko tresna da BARREN. Euskaldunak ez ezik erdaldunak ere biltzen dituelako astekariak euskararen mundura.

Ea aurtengo gabonetan Olentzerok opari bikainak ekaritzen dizkizuen urte hauetan egindako lan guztiaren ordainetan! Zorionak, eta urte askotarako!

Olentzeroren zakua



Erosi herrian eta eman babesas herriko establezimenduei!

Krisi garai honetan inoiz baino garrantzia handiagoa dauka herriko ekoizle eta merkatariei laguntzea, izan ere, herriko negozioak ekonomiaren oinarri sendoenetarikoak dira, eta dirua establezimendu horietan gastatzea herrian inbertitzea da. Azken batean, herriko negozioei languntzeak norberari eta herri-komunitateari ere laguntzen dio. Herri ekonomian inbertitzen den diruak enplegu lokala sortzen du, eta diru hori batetik bestera mugitzen bada, irabaziak lortzen dira. Herriko negozioak komunitatearen bizi-kalitateaz gehiago kezkatzen dira merkatalgune handiak baino, eta eskaintzen dituzten lanpostuen kalitatea establezimendu handietan baino hobea da. Hortaz, kontsumitzerakoan ondo aukeratzea da garrantzitsuena, kontzientziak erosi behar dugu, ekonomia jasagarria lortu nahi bada. Norbanako bezala gure herrian inbertitzea da ekonomiaren alde egin dezakegun gauzarik garrantzitsuena. Gehigarri honetan aurkituko dituzun boletoekin deskontuak eskuratuko dituzu, abenduaren 14tik urtarrilaren 5era arte. Erosketa bakoitzeko boleto bakarria erabili daiteke, eta ezin dira bestelako beharpenei gehitzeko. Dendetan eskatu boletoari zigilua jartzeko!

Imprenta Arrillaga

Inprimaketa: Offset
Digitalean

Ezkontza gonbidapenak
Hileta origarriak
Bisita txartelak
Kartelak - etiketak
e.a.

Fotokopiak

Koloretan
Txuri-beltzean

%10eko beherapena poltsikoko egutegi eta gabonetako oroigarri pertsonalizatuetan

(10 unitatetik gorako eskaeretan)



Trebide kalea, 13 - behea
Te.: 943 740 187
e-posta:
arrillagas@euskalnet.net

PITXINTXU
-ren izenean

zorionak eta urte berri on!

Zatoz kupoi honekin, erosketa egitean oparitxo bat jasoko duzu

www.pitxintxu.com



Telefonoak:
943 743 206
688 887 580



%10eko beherapena zure erosketatan kupoi hau ekarri zezake!



Animatu zaitzete!

GARATE

Jantzi - Denda



- Amy Gee Soinekoa: 54,00 €
- Amy Gee Berokia: 74,00 €
- Nice Things poltsa: 79,00 €
- Nice Thing poltsa txikia: 26,00 €
- Amy Gee stola: 24,00 €
- Cream sport-ak: 24,00 €
- Xarlem lepokoa: 14,00 €

Kupoi honekin %10eko beharapena zure erosketetan

ZORIONDU zure familia eta lagunak jalegun hauetan egutegiak oparituz eta urte guztian zehar eskertuko dizute.

2013

Torri hamen zure irudi edo argazkia

%20

Gubideneko eskaera 10 ale.



San Bartolome, 15
ELGOIBAR
Tel.: 943 63 17 46
jasone@jasonesg.com

www.jasonesg.com



Rosario kalea, 34
Tel.: 943 531 205

- BENCH Txaketa grisa : 178,20 €
- BENCH Jertse grisa (mariki osotua) : 72,95 €
- VOLCOM gerritoka: 39,95 €
- Volcom PRAKAK: 72,95 €
- VOLCOM txapela: 39,95 €
- VOLCOM bufanda: 55,95 €
- Beheko marikiako jertsea: 113 €
- CARHARTT BOLTSAK: 29,00 €



Kupoi honekin %10eko beharapena zure erosketetan

Ferpi

%10eko beharapena izango duzu berokietan eta parketan.



63€



93€

IRIONDO KIROLAK

MENDI ETA KALEKO KIROL MODA
San Frantzisko, 37 Tel.: 943 74 09 56

GPS erlojua →
149,90 €



← Sports armband
19,90 €

Receiver Chest
59,90 €



runtastic



San bartolome, 28 943-74 43 45

Opari **SEGURUA** zuen erosketetan!



TROPPIA etxeak %20eko beharapena!



SKANDALO

%10eko beherapena bata eta pijametan



San Bartolome, 9 - Tel.: 943 743 595

CASA ASTIGARRAGA

Errosario, 16-18 Tel.: 943 743 268



Gabon hauetan oparitu itzazu Messiren zapatilak eta txapeldunen ligako baloia!



Aukera paregabea boletu hau ekarriz gero reebok etxeko easytone zapatiletan %30eko beherapena izango duzu!

G & M

Kupoi honekin %15eko beherapena izango duzue zuen erosketetan.



Txamarra
Kakia:
94,80 €

Jertsea:
44,70 €

Fularra:
19,90 €

Lois Praka
entzeratuak:
77,00 €

Bufandak:
22,50 €

ARAMBURU BITXIDENDA

San Frantzisko, 26
Tel./faxa: 943 74 25 35

89€



45€



115€

VICEROY

Sara

Rosario, 14 - Tel.: 943 743 555 - Elgoibar



Jertsea: 26,95 €
Gonax: 29,95 €

Lepokoa: 24,95 €
Boltza: 25,00 €

Kupoi hau ekarriz gero %15eko beherapena egingo dizugu zure erosketetan

Kala Loradenda



Mimo handiz eginiko opariak!

San Frantzisko, 24 - Tel. 943 744 516

TXANKAKUA



ELGOIBARKO MERKATARI
ETA ZERBITZU ELKARTEAK **1.800€**
OPARITUKO DITU EROSKETA-TXEKETAN

zorionak



**Txankakuako dendak 22an (larunbata)
Zabalik arratsaldez!**

Hemendik aurrera denda asko zabalik larunbatetan 14:00ak arte.



BITTOR ARRIETA ETXANIZ

2012ko azaroaren 28an hil zen, 86 urte zituela.

*Hara nun diran mendi maiteak,
hara nun diran zelaiak,
baserri eder zuri-zuriak,
iturri eta ibaiak.*

Zauden lekuan zaudela, guk beti
gogoan izango ditugu zurekin egindako mendi-ibilaldiak.

Arrieta familiako ilobak



BITTOR ARRIETA ETXANIZ

2012ko azaroaren 28an hil zen, 86 urte zituela.

*Naturak berak ditu legeak
bere modura ezartzen,
sarri arrazoiz ulertzen ez dena
bihotzak daki azaltzen.
Mendiak zenbat holako ikasgai
lagundu ei zizun ulertzen,
guk ere orain zure agurra
jakin dezagun onartzen,
zure oroimen eta izana
barru-barruan gordetzen.*

Etxekoak



III. URTEURRENA

MIREN ITZIAR ETXABE SALEGI

*Garen bezalakoak garelako,
zure irribarre eta indarragatik,
eman diguzun maitasun eta guztiagatik.
Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
betirako gure bihotzetan.*

2009ko abenduaren 8an hil zen.

Familiakoen partez



Hogei urtean esanak

1992tik hona makina bat lagun elkarrizketatu ditu BARRENEK. Protagonista zuzenak izan dira batzuk eta gertakari jakin batzuen inguruko lekukotza eman digute beste zenbaitzuk. Hona hemen bildutako titular guztien artean egindako aukeraketa bat.

- **JOSE GURRUTXAGA**, atleta: “Elgoibarraren egin eta sortu daitezke korrikalariak, afizioa badago eta. Mintxetako pista amaitzen dutenean edukiko dute aukera gazteek”.
- **SANTI MAIZTEGI**, atleta: “Olinpiar Jokoen korritzea baino nahiago dut Mugertza Memorialean irabaztea”.
- **ITZIAR AJURIA**, andereño ohia: “Ikastola itxiko ote ziguten beldurrez egoten ginen beti”.
- **TXOMIN MUJICA**, Elgoibarko Musika Bandako zuzendaria: “Orain oso estimatua dagoen arren, lehen musikoa titiritero bat zen”.
- **KOLDO LIZARRALDE**, historialaria: “Elgoibartarra lan asko egin duen pertsona dela argi ikus daiteke”.
- **PEDRO GOROSTIDI**, apaiza: “Jose Miguel Barandiaranek animatuta sortu nuen Arrate Irratia”.
- **ALFONSO GUILLO**, irakaslea: “Hezkuntzan euskara behikuloa da, eta aberatsagoa egin behar dugu”.
- **JOSE REJO**, IMHko zuzendari kudeatzailea, 1992an, eskola sortu zuten garaian: “IMH enpresari begira sortu zen, eta helburu nagusiak hori izaten jarraitzen du”.
- **JASONE OSORO**: “Irakurtzia gustauko jatana idazten dot”.
- **OVIDIO CAMPELLO**, PSE-EEko zinegotzi ohia: “Abertzaleen eta ez abertzaleen arteko bereizketa eragozteko guztioi dagokigu”.
- **IÑAKI AGIRRE**, Ongarri Zine Klubekoa: “Zine komertzialaren egituretara ohitu gara, eta bestelako zinea arraroa egiten zaigu”.
- **PATXI ALDABALDETRERU**, ‘Makinak eta gizakia: gida historikoa’ liburu aurkeztu zueneko: “Makinak inoiz ez du gizakia menpean hartuko, baina ordezkatu agian bai”.
- **CRUZ ARRIOLA**, XX. mendeko enpresari izendatu zuen Komertzio Ganberak: “Bilboko ferixia erreminta makinarren Hollywood da”.
- **JOSEBA ETXEBERRIA**, Athleticeko jokalaria: “Realaren aurkako derbiko garaipea familiakoei eskaini nahi diet”.
- **ARNALDO OTEGI**, politikaria. 37 urterekin legebiltzarkide izendatu zutenean: “Guk ez dugu nahi Euskal Herria bakean egotea, herri hau bere erabakiak hartzeko bakean uztea nahi dugu”. Eta Auzitegi Nazionalak epaitu zain zegoenean: “Ez dut ulertzen bizitza konpromisorik gabe”.
- **MIKEL ALBERDI**, 17 urte preso egin ondoren: “Nire buruan herri hau aurrera ateratzea eta beste preso guztiak etxeratzea dago”.
- **FELISA BERGARETXE**, Gernikako bondardaketaren lekukoa: “Gernikako bondardeua izan zanian, Neguritxik zeru dana gorri-gorri ikusi genduan. Dana laututa laga eben”.
- **PEDRO AGIRREGOMEZKORTA**, Korta Saria jaso berritan. “Gaur egun etxian daukaten balxo haundixenetako gauzia da Korta Sarixa”.
- **MONTSE ARREGI**, ‘Egunkaria’-ko Kultura Saileko erredaktorea, euskarazko kazeta itxi zutenean: “Eguneroko informazioa hemengo ikuspegitik eta gure hizkuntzan lantzea izan da ‘Egunkaria’-ren bekatu bakarra”.
- **IÑAKI JAI**, 19 urte kartzelan egin ondorenean: “Euskal Herria maite duten denen artean elkarrizketa da irtenbidea”.
- **GOTZON GARATE**, euskaltzaina: “Hori da nire bizitzako eginkizuna. Euskarari laguntzea”.
- **MARTIXU LOIOLA**, Elgoibarko Euskara Batzordekoa: “San Pedroko eskolan ikasi nuen euskara maitatzen”.
- **ANDRES EGAÑA**: 40 urte inguruz DV-ko Mendaroko berriemailea izandakoa: “Mendaroko Udala sortu zenekoa izan zen albiste bereziena”.
- **IÑIGO ARKAUZ**, PPko zinegotzi ohia: ETAK PPko eta PSOEko hautetsien kontra atentaturik ez zuela egingo adierazi ostean. PPko zinegotzia zen orduan Elgoibarko Udalean: “Trapezistek sarea duten bezala, guk bizkartzainak ditugu bizitza babeste”.
- **INAZIO IRIONDO**, 20 urte baino gehiagorako preso egon ostean: “Kartzelako bizimodura ohitu baino gehiago egokitu egiten zara”.
- **ROSA MARI SALEGI ‘MAUSITXA’**: Ordiziako Gazta Lehiaketa aurrenekoz irabazi zutenean: “Ordiziako Gazta Lehiaketa irabaztea arraunean Kontxako Bandera irabaztea modukoa da!”.





• **JOSE ANTONIO OSORO**, Musika Bandako zuzendaria: “Herri gutxitan dago Elgoibarren bezalako musikari harrobia”.



• **JOSE MARIA REGIL**, Pertika jauzilari ohia: “Gaur egungo pertikekin ilargiraino egingo nuke salto”.



• **JUAN JOSE GOIKOETXEA**, historialaria. *Historias de una Gipuzkoa Desconocida (Miscelánias del Bajo Deba)* liburua argitaratu zuen: “Mendaroar batek Colonekin bidaiatu zuen Ameriketara 1492. urtean.



• **MARIANO FERRER**, irrati esataria: “Kristau batek ezin du beste bat hiltzea desiratu, baina urte askoan egon nintzen Franco hiltzeko zain”.



• **XABIER ARAKISTAIN**, artista, Gasteizko Montehermoso Kulturunearen zuzendari izendatu berritan. “Artista emakumezkoak alboratuak daude arte garaikidearen esparruan”.



• **J.M. MAKAZAGA**, ‘Elgoibarko euskeria’ liburua aurkeztu ondorenean: “Gure aittitta-amamen hizkeria ahalik eta era fidelenian jasota lagatzia da helburua”.



• **ANGEL BASTERRETXEA**, Mendaroko parrokoa: “Erligioak herria menpean hartu zuen, baina ez behar zuen bezala”.



• **FELIX ETXEBERRIA**, Elgoibarko Izaarra kultur elkarteko sortzaileetakoa: “Munduari bueltia emateko ilusiarrekin hasi giñan lanian 1963an”.

• **EDURNE LASA**, aktorea: “Helburua antzerkiaren bidez euskara leku guztietara eramatea da”.

• **IÑAKI LAZAROBASTER**, Gipuzkoako EHNEko lehendakari izendatu berritan: “Merkatu globalean ez dugu zereginik; merkatu lokala izan behar dugu”.

• **JUAN CARLOS ETXEGOIEN** ‘Xamar’ idazle eta hizkuntzalari: “Euskararen herriak irauteko kontzientzia garbia izan du”.

• **HASIER ETXEBERRIA**, idazlea (412 alea). *Bost idazle* liburua argitaratu zueneko: “Nik egindako lanetan eta egingo ditudanetan beti egongo da presente Elgoibar”.

• **JOSE LUIS BELLOSO**, abadea: “Abortatuta gutxi batzuk hiltzen dira, baina gosez 30.000 haur hiltzen dira egunean”.

• **AIZPEA GOENAGA**, aktore eta film zuzendaria: “Gogo handiagoa behar da euskal zinema gehiago egiteko”.

• **MARTXELO OTAMENDI**, *Euskaldunon Egunkaria*-ko eta *BERRIA*ko zuzendaria. *Egunkaria*-ren kontrako epaiketa hasiko zutela iragarri zutenean: “Azken urteotan ez dugu bultzada politikoko auzi bat irabazi, eta aurreneko garaipen bat behar dugu”.

• **JOAN MARI TORREALDAI**, idazlea eta *Egunkaria* auziko auzipetua. Auzitegi Nazionalak *Egunkaria* auziko sumario nagusian auzipetutako bost lagunak absolbitu zituenean: “Nire eskerrik zintzoena Elgoibar eta Mendaroko euskaltzaleei”.

• **JOSE MARI ONDARZA**, bidaiaria: “Hanka hutsik nabilenetik beti epel dauzkat oinak”.

• **JULEN ZABALETA**, artista, 90 urte bete bezperan: “Jubilau eta gero ere, zortzi urtian jardun naban tallarrerako dibujatzen”.

• **XABIER ARZALLUZ**, EAJren EBBko presidente ohia (Arnaldo Otegi askatu politikari askatu herri plataformak gonbidatuta Elgoibarren izan zen: “Aspalditik ezagutzen dut Arnaldo Otegi, eta badakit egiaz ari dela, benetan ari dela”.

• **PAKO IRIONDO**, mendizalea: “Bizixa eman ditt neri mendixak”.

• **JON ETXABE**, Burgosko prozesuan auzipetuetako bat: “Frankismoaren kontra bihurtu zen Burgosko prozesua”.

• **SABIN TXURRUKA**, Sallobenteko frontoiak 100 urte bete zituen egunean 10 Bai taldekuek omenaldia egin zioteneko: “San Lorentzoko basarritar danek jokatzeko zeben ondo pelotan”.

• **MIKEL HERNANDEZ ABATUA**, *Azukre xehea, gatz larria* izeneko liburua argitaratu zuenean: “Euskarari esker askoz hobeto ulertzen da Euskal Herria”.

• **ESTEBAN ANTJUSTEGI**, Agirre Lehendakaria saria irabazi zuen *Actualidad y retos de la filosofía política* lanarekin: “Garena izaten jarraitzeko ez daukagu zertan ukatu bestea”.

• **JAVIER NUÑEZ**, PPko zinegotzia, bere alderdiko diputatu batek sexu bereko bikoteak ezkontzea baimentzen duen legearen kontrako errekurtsoa aurkeztu zuenean: “PPkoa eta homosexualitatea ez da kontraesana”.

• **ASISKO URMENTA**, *Gartxot* filmaren zuzendarietako bat. “Jostagari egin behar dugu euskara, eta ez tematu horrenbeste arauarekin eta”.

• **JESUS BILBAO ENPRESARIA**, Gure Balioak saria jaso berritan. “Ez dago eguneroko zailtasunek ematen dutena baino eskola hoberik”.

• **PELLO RUBIO ‘TXILLARRE’**, Arnaldo Otegi eta Jesus Egigurenek urteetan Txillarren ezkutuan egin zituzten bileren harira. Komunikabide bati gai horren inguruan emandako lehenengo elkarrizketa izan zen: “Prozesuari emandako gizonak dira Arnaldo Otegi eta Jesus Egiguren”.

8.500 lagunek irakurtzen dute 'BARREN' astero



'Ni ere banaiz BARREN' kanpainaren harira ateratako argazkia.

Elgoibarko Izarra kultur elkarteak BARREN astekariari buruzko ikerketa sakona egin zuen 2009an, Aztiker ikerketa-enpresaren laguntzarekin. Batetik, astekariaren irakurleen profila ezagutu nahi zuen elkarteak, eta bestetik, herritarren iritziak jaso nahi zituen. Hiru zatitan egin zuten ikerketa: lehenengoan, idatzizko inkestak bidali zituen etxeetara BARRENEK (4.500 guztira); bigarrenengoan, herriko hainbat eragilerekin hamabost elkarrizketa inguru egin zituen euren iritzia jasotzeko; eta hirugarrenengoan, telefonozko inkestak egin zituzten. Elgoibarko eta Mendaroko 725 etxetara deitu zuten Aztiker enpresako adituek, adin eta sexu diferenteetako herritarren iritziak jasotzeko.

Jarraian dituzue galdetegi hartan eginiko galdera eta erantzun aipagarrienak:

Zenbat jendek irakurtzen du BARREN astero?

Asteroko ale bakoitzak 8.500 irakurle inguru ditu batez beste. Irakurleek 29,2 minutu pasatzen dute batez beste astekaria irakurtzen. BARRENEK irakurle gehienak euskaldunak dira. Baina, BARREN astero eskuetan hartzen dutenen artean, %29 erdaldunak edo euskaraz ulertzen ez dutenak dira.

Zenbat jendek ezagutzen du BARREN?

15 urtetik gorako elgoibartar eta mendararren %98,3k ezagutzen dute.

Zer nota eman diote herritarrek BARRENI?

Batez besteko 7,7 nota eman zioten herritarrek.

Garrantzitsua da BARREN elgoibartarrentzat?

BARREN herriarentzat gauza ona edo oso ona dela uste dute %99,3k. Ia erdiak gertuko informazioa baloratzen du gehienbat. Euskara sustatzea ere begi onez ikusten dute %28k, eta BARRENEK irakurleen %89,2 ez dute etxean euskarazko bestelako aldizkaririk jasotzen. BARRENEK irakurleen %58,5ek inolako arazorik gabe ulertzen dute astekariko euskara.

BARREN aldizkari plurala da?

Irakurleen %93,4k BARRENEK albisteak

objektibotasunez tratatzen dituela uste dute, eta aldizkaria plurala dela diote %89k. Lerratua dela diotenen artean, EAJren eta ezker abertzalearen aldeko joera duela esan dute irakurleek. %58,1 lehenengoaren alde, eta %54,8 bigarrenengoaren alde.

Zelan tratatzen dira Udalaren gaineko albisteak?

BARREN inoiz irakurri duten bost herritarretatik lauk Udaleko albisteak objektibotasunez tratatzen direla uste dute. Hori horrela ez dela diotenen artean, gehiago dira Udalaren aldeko jarrera ikusten dutenak, kontrakoa ikusten dutenak baino.



LUIS MARI IRIONDO

Irakurlia

Hasieran, BARREN astekarixa Elgoibarko Izarrako bazkidiei banatzen jakuen bakarrik, eta Luis Mari Iriondo elkarteko bazkide zanez, estreiñako aletik hasi zan BARREN jasotzen. Hogeitun urte pasatu dira ordutik, eta hasieran sorpresa izan zana, ohikua da harentzat gaur egun. Gustura hartzen dau BARREN barixakuetan, eta azken urtietan www.elgoibarren.net atari digitaleko bisitari fidela da. Elgoibarko berriak egunero euskaraz jasotzia bezalakorik ez daguala aitortu dau.

“BARRENEK euskal girua sartu dau Elgoibarko sukaldietan”

20 urte egingo ditte BARRENEK abenduaren 24an.

Zelan pasatzen dan denboria! Ez neuke berehala esango hogeitun urte pasatu diranik! Hasieran sorpresa izan zan BARREN jasotzia. Orain ohittu egin gera, eta ez daguanian faltia! BARREN ez balego faltia haundixa izango litzake!

Zer eman dio BARRENEK Elgoibarri?

Euskera maillan asko eman dio BARRENEK Elgoibarri. Euskera ederra, garbixa eta erretza da, eta ondo ulertzen da. Guk eskolan dana erderaz egitten genduan, eta nobixotan ere erderaz egitten genduan gehixena. Euskeria traba zan orduan. Mutillen artian batzuekin egitten genduan euskeraz, baiña andrak asko egitten zaben erderaz. Eta ezkondu giñan, eta gure artian ere erderaz jarduten genduan. Eta gero umiak ere etorriko zirala eta harek nola euskaldu zan gure kezkoa. Ikastolia sortzen zala jakin genduan orduan, eta salbatu giñan! Denboriak hasi giñan euskeraz egitten, eta BARREN etaratzia ere gauza ona izan zan euskeriantzako. Euskal girua sartu zaban BARRENEK Elgoibarko sukaldietan. Azkenaldixan letria pixkat findu egin da, eta irakurtzia kostatu egitten jata pixkat, baiña bestela oso ederra da. Pozik hartzen dogu BARREN.

Zer da BARREN astekaritik gehixen gustatzen jatzuna?

Nik dana irakurtzen dot. Ordu erdi bat pasatzen dot BARREN irakurtzen, hasieratik amaierara. Alkarrizketak onak izaten dira, eta artikulua ere gustatzen jataz. Eta urtebetetziena ere asko gustatzen jata! Han urtetzien dira gure umiak ere! Ni naiz horren enkargaua. Bost billoba daukat eta haren eguna allegatu baiña hamabost bat egun lehenago deitzen diuet gurasueri erretratua eskatzeko. Txikixak ziranetik gaur egunera artekuak gordeta daukat, eta eureri erakusten diuet zelan kanbixatu diran ikusteko. Pillo ederra daukat gordeta! Eta batzuetan atzeko anuntziuak ere irakurtzen ditud; zenbat eskaintza dagan...

Eta, zer falta zaio BARRENI?

Argia ere irakurtzen dot, eta han badago historixiari buruzko atala. Ha-

ren zain egoten naiz. Neri historixia asko gustatzen jata, eta BARRENE ere ondo egongo litzake. Ez beti, baiña lantzian behin Elgoibar zelan kanbixau dan ikusteko... Adibidez oin dala 200 urte zelakua zan Maa-lako elizia edo bestia... Zeozer sartzekotan, Elgoibarko historixia sartuko neuke.

Atari digitala ere sarri bisitatzen dozula badakigu.

Bai. Goizian jaiki eta berehala sartzten naiz elgoibarren.net-en. Neretzako oin momentuan aldizkarixa bera baiña inportantiagua da elgoibarren.net. Egunero herrixan zer pasatzen dan ikusteko dagan gauzarik onena da.

Nola hasi ziñan Interneten nabigatzen?

Kasualitatez. Ni ordenadorian kontrakua izan naiz beti. Gerente izan nintzan urte askuan, eta datuak bihar nittuanian askotan esaten zidaten ezin zala ordenatoria ez zabilrelako. Eta sekulako amorrua hartu nion. Baiña ni gauzak klasifikatzekua izan naiz beti, historia kontuak gustatzen jataz, eta apunte asko nittuan karpetetan gordeta. Semiak esaten zidan hórrek danak ordenadorera pasatzeko, baiña ezetz esaten nion beti. 71 urte nittuala, bere enpresan zahartuta geratu ziran ordenadoriak, eta berak ekarri zidan bat. Historiako apunte eta DVDak hara pasatu genittun, eta gustatu jatan haura pantallan ikustia. Eta kasualidadia, orduan KZgunea sortu zan. Kursillua egin naban, eta haura izan zan deskubrimendua! Ordenadorian karpetak deskubridu nittuan, eta ni klasifikatzaillia naizenez, asko gustatu jatan. Internet ere orduan ezagutu naban, eta Elgoibarko Izarrara jua nintzan baten esan zien elgoibarren.net martxan zaguala, eta ordutik egunero-egunero sartzten naiz.

Zer da elgoibarren.net ataritik gehixen gustatzen jatzuna?

Bideuak. Bideuen kalidadia oso ona da, edarrak dira. Ni Super8-arekin ibillitua naiz, eta badakitt bidiua grabatzia zer dan. Panoramikuak grabatzia zailla izaten zan, eta elgoibarren.net-eko bideuak oso ondo grabatuta daude, geldi-geldi, ez da mobitzten ezer ere! Edarral.

Nora iristen da 'BARREN'?

Azken hogei urteetan hutsik egin gabe ostiralero sartu da **BARREN** elgoibartarren etxean. Hasieran gutxi batzuen etxean sartzen zen, baina gaur egun ia etxe guztietara iristen da. Izan ere, gero eta etxe gehiagotan sartzen da **BARREN** aldizkaria. Eta ez hori bakarrik: **BARRENEK** bidaiatu ere egiten du eta munduko txoko desberdinetara iristen da. (Beherago dituzue datuak). Aldizkari gehien-gehienak, zelan ez, Elgoibarko herriko 3.674 etxetako buzoietan sartzen dituzte gure banatzaileek. Sei lagun aritzen dira lan horretan eta beste lagun batek baserrietan eta Altzolan banatzen ditu. Mendaroko banatzaileek ere 455 ale banatzen dituzte Mendaroko etxe eta baserrietan. Banatzaileen lana ezagutarazteko asmoz, Eneko Gomez banatzailearekin berba egin dugu.



4.829 ale ateratzen dira astero. Ikus dezagun nola banatzen ditugun:	3.674: Elgoibarko etxeetan 455: Mendaron 220: Elgoibarko baserrietan 62: Elgoibarko enpresetan 59: Altzolan 345: Euskal Herritik kanpora
--	---

ENEKO GOMEZ, BARRENEKO banatzailea



Noiz hasi zinen **BARRENAK** banatzen?

Orain dela bizpahiru urte. Banatzaile izan zen lagun batek gomendatuta hasi nintzen, ondo ordaintzen zutela aipatu zidan-eta. Erosle konpulsiboa naizenez, diru piskat irabazteko hasi nintzen.

Lan zaila al da?

Ez oso zaila. Nahiko ondo moldatzen naiz. Hasieran behar nuen denbora erdian egiten dut orain banaketa. Bi lagunen artean egiten dugu gure zonaldea (San Frantzisko, Errosario, Artekale, e.a), eta ordu eta erdian amaitzen dugu lana. Batzuetan portaleko atea ez digute zabaltzen eta hori izaten da arazorik handiena. Batzuetan ez dugu-eta atea zabalduko digun inor topatzen. Halakoetan ate azpitik sartzea beste aukerarik ez dugu izaten, baina ahal dugun guztietan gutunontzian sartuta lagatzen saiatzen gara, **BARRENEKOEK** halaxe egin behar dugula agintzen digute-eta. Pegatinekin ere arazo dezente izaten dugu. Ez dut zergatia uler-tzen, baina jendeak kendu egiten ditu pegatinak, eta horrek asko zailtzen du gure lana. Izan ere, harpidetuta dauden herritarren zerrenda aldean eramaten dugun arren, pegatina jarrita duten buzoietan lagatzen ditugu aleak.

Barixakuero banatzen dituzu **BARRENAK**; eta irakurri?

Eskolatik irten eta zuzenean joaten naiz **BARRENAK** banatzera. Banatzea tokatzen zaizkidan aleak zenbatu eta edukia begiratzeko astirik gabe hasten naiz lanean. Iluntzean, etxera joaten naizenean, hartzen dut irakurtzeko astia. Gustatzen zait **BARREN** irakurtzea. Dagoen moduan ondo dagoela uste dut, ez nioke ezer kenduko, ezta ezer gaineratuko ere.

ESKERTZA

M^a CARMEN BIZKARRONDO ARTETXE

2012ko abenduaren 10ean hil zen.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



GARATE



Jantzi - Denda

Tel.: 943 741 129

Abenduaren 14tik urtarrilaren 5era arte balio du

Kupoi honekin
%10eko
beherapena
zure erosketetan



Belaustegi Baserria



JATETXEA

San Migel Gaina z/g - Tel. 943 74 31 02

www.belaustegi.com

VI. maridajea

2012ko abenduaren 15ean, 21:00etan

- Leongo jatorrizko izendapeneko idi zezina, Idiazabal gazta txirbilekin eta Arbekina oliba olioarekin.
- Mas Ferrer brut kaba nature ardandegiko erretserba ardoarekin.
- Itsaski zitzi-pitzia, zigala eta otarrainska ozpin-olioarekin
- San Clodio ardandedia, Ribeiro jatorrizko izendapena. Treixadura.
- Bakailao kokotxak pil-pil erara
- Virxen de Galir ardandegia, Valdeorras jatorrizko izendapena. 100% Via Nova Godello.
- Orkatz raguta ardo beltza eta Xixona turroiarekin
- Ebano ardandegia, Ribera de Duero jatorrizko izendapena. Ebano kriantza.
- Gabonetako konpota ardo beltzarekin eta idiazabal gaztaz eginiko izozkiarekin.
- Mas Ferrer ardandegia, brut caba erretserba.



Lekua hartzeko:
943 743 102
restaurante@belaustegi.com

Autobus zerbitzua
Elgoibartik

55 €



Jair Miranda 15 urte

BARREN oso interesgarria da. Notizia onak agertzen dira, eta ez da aspergarria egiten. Hala ere, gazteentzako gai gehiago sartuko nituzke, umorezko gaiak, bereziki. Nik euskaraz irakurtzeko zailtasunak ditut, eta batzuetan beste norbaitek itzultzen dizkit testuak. Euskara ikasten laguntzen dit BARRENEK. Eskolako lanak egiteko ere erabiltzen dut BARREN, eta Internetetik hartzen ditut albisteak Euskarako klaseetarako. elgoiBARREN.net eta Berriaren webgunea erabiltzen ditut klaserako albisteak idazteko. Euskara ikasten ari direnentzat oso ondo dago.



Zuhaitz Leiaristi 9 urte

Asko gustatzen zait BARREN. Urtebetetzeen eta jaiotakoen atala gustatzen zait gehien, umeak azaltzen direlako. Jaietako argazkiak ere politak izaten dira. Ni agertu izan naiz festetako argazkietan eta jende askok esan zidan ikusi ninduela. Ilusioa egiten du. Batzuetan notiziak ere irakurtzen ditut.



Ainhoa Mugertza 14 urte

Elgoibar eta Mendaroko berri jakiteko oso interesgarria da. Noizean behin gazteen gaiak ere irtetzen dira, eta gustatzen zait. Iritziak irakurtzea ere gustatzen zait, eta zorion-agurren atala beti begiratzen dut, ezagunen baten urtebetetzea den jakiteko. Jende ezaguna ikustea polita da. Ni behin agertu nintzen TxikiBARRENEN, eta ilusioa egin zidan. Interneteko ataria ere ezagutzen dut, baina ez daukat webgune horretan sartzeko ohiturarik. Internet beste gauza batzuetarako erabiltzen dut, baina BARREN nahiago dut paperean irakurtzea.



Lara Santaren 9 urte

Herrian zer egiten duten ikusteko oso interesgarria da. Zineman zein pelikula botatzen duten ikusteko ere erabiltzen dut, eta noren urtebetetzea den jakiteko ere ondo dago. Ni askotan irten izan naiz zorion-agurren tartean. Barruko albisteak irakurtzen ditut, eta portadako titulua ere bai. TxikiBARREN atala asko gustatzen zitzaidan




Mikel Vicario 9 urte

Gustura hartzen dut BARREN aldizkaria ostiralean. Urtebetetzeen atala da politena, lagunak agertzen direlako. Ni ere agertu nintzen 8 urte egin nituenean. Etxekoek jarri zidaten argazkia. Banekien agertuko nintzela, eta ilusioa egin zidan. Jende askok zoriondu ninduen BARRENEN ikusi nindutelako.



Uxue Agirretxea 10 urte

Ostiraletan etxera joaten naizenean beti begiratzen dut buzoia, BARREN iritsi den ikusteko. Niri gustatzen zait aldizkaria etxera eramatea, lehena irakurtzeko, baina batzuetan amak hartzen dit aurrea. Hala ere, irakurtzen dut. Jende ezaguna ikustea gustatzen zait. Behin nire aitaren lehengusua irten zen, eta familiakoak agertzea gustatzen zait.



Naroa Lopez 9 urte

Ni baino 11 urte gehiago ditu BARRENEK! Polita da, eta gustatzen zait. Lehenengo zorion-agurren atala begiratzen dut beti, lagunak bat agertzen den ikusteko. Testuak ere irakurtzen ditut, den-dena! Nire ahizpari ere gustatzen zaio aldizkaria begiratzea. 2 urte ditu, eta dagoeneko ikasi du *Barren* esaten.

lo 15 urte

zait BARREN eta pozik hartzen dut aldizkaria. Lagunen artean normalean, eta albisteak komentatzen ditugu gure artean. ikustea polita da, eta Mendarokoak agertzen direnean ilusioa baldian Mendaroko jende gehiago agertzen da, eta hori ondo dut BARREN begiratzen. Badaukat Interneten ibiltzeko ohitura, zen dut.



Maialen Etxeberria 14 urte

Nik hartzen dut astero buzoitik BARREN. Kexen atala gustatzen zait gehien, herrian zer dagoen ondo eta zer gaizki ikusteko. Jaietako edo ihauterietako erretratuak ere gustura ikusten ditut, baina bestela, erreportaje gehienak helduentzat dira. Elkarriketak gehiago gustatzen zaizkit, futbolistei edo aktoreei eginikoak bereziki. Atari digitalean behin sartu nintzen BARREN ez zelako iritsi, baina bestela ez daukat ohiturarik.



Markel Garate 9 urte

Ezagutzen dut BARREN, eta gustatzen zait. Ikusten badut aldizkaria, irakurtzen dut. Niri umeen argazkiak ikustea gustatzen zait. Ni ez naiz inoiz irten BARRENEN, baina lagunak eta ezagunak ikustea gustatzen zait. Gurasoei ere asko gustatzen zaie.



Goiatz Andonegi 9 urte

Gustatzen zait BARREN, batez ere, urtebetetzeak agertzen diren orrialdea. TxikiBARREN eta umeentzako gauzak irakurtzea ere gustatzen zait, baina gutxitan agertzen dira. Ni zorion-agurren atalean irtenda nago, eta beste behin, Ikastolara etorri ziren galdera bat egitera, eta nik erantzun nuen. Jende askok ikusi ninduen.

ElgoiBARREN.net: 'BARREN' en anaia digitala

BARREN aldizkaria sortu zenean, orain hogei urte, gutxi ziren etxean ordenagailua zeukatenak eta are gutxiago Internet zer zen zekitenak. Komunikatzeko moduak, baina, gututz aldatu dira denbora oso laburrean. BARRENEK Interneten ere leku behar zuela-eta, 2006an egin zuen Interneterako jauzia. Elgoibarren gertatzen dena momentuan emateko sortu genuen *elgoiBARREN.net* atari digitala. Asmo horretan jardun dugu lanean azken sei urteotan eta datuek geneukan sentsazioak berretsi dituzte: *elgoiBARREN.net* webgune estimatua da. Izan ere, urtez urte erabiltzaile kopurua igotzen ari da. Hona hemen zenbait datu interesgarri.

2006ko urriaren 23tik 2012ko urriaren 23ra arte, 1.037.592 bisitaldi izan ditu webguneak, hau da, 473 bisitaldi eguneko, eta 14.411 hileko, batez beste. Azken sei urteotan bisitari gehien izan zituen eguna 2011ko maiatzaren 23a izan zen: (2.021 bisitari). Baliteke bezperan izan ziren Udal Hauteskuendeen berri eman genuelako izatea. Guztira 3.503 artikulua argitaratu ditugu sei urtean. Eta, Youtube eta vimeo bideo plataformetan ditugun kontuetan 200 bideotik gora dauzkagu igota.

elgoiBARREN.net atariak izan duen bisita kopuruaren bilakaera, urtez urte:

2007	134.881
2008	153.188
2009	169.337
2010	169.337
2011	169.337
2012	197.301*

*Abenduaren 12ra arteko datua



ILVNPE

San Frantzisko, 60
943 748 050 - Elgoibar **taberna**

10:00etatik 23:00etara
sukaldea zabalik

OGITARTEKOAK

RAZIOAK

- ◆ Leongo xezina
- ◆ Iberikoak
- ◆ Foie
- ◆ Txopitoak
- ◆ Patata frijituak hira saltzekin

PLATER KONBINATUAK

- ◆ Ulondotzosa, patata purrea edo saltxitzekin
- ◆ Olaisko paparra, soletzosa...
- ◆ Oilasko hegoak barbakoaren eran
- ◆ Onádo-nahaskia

ENTSALADAK

- ◆ Ahate arandoi entsalada epela
- ◆ Keratuen entsalada
- ◆ Entsalada mistoa tomatearekin
- ◆ Fruitu lehor eta mahaspasa entsalada



Aitor Lauzirika

“Elgoibarren gertatu dena jakiteko wikipedia modukoa da elgoibarren.net”

Egitasmo honetan hasieratik izan dugu bide-lagun Aitor Lauzirika. Informatika kontuetan aritua eta aditua da, eta beti izan dugu laguntzeko prest. Makina bat arazotatik irteteko iparrorratza izan da guretzat Aitor Lauzirika.

Orain sei urte sortu genuen *elgoiBARREN.net* atari digitala, **BARREnek Interneten ere lekua behar zuela-eta. Sorrera prozesuan hartu zenuen parte. Nola gogoratzen duzu sasoi hura?**

Ilusioz betetako garaia izan zen. Era berean, bilera eta lan askoren emaitza izan zen *elgoiBARREN.net*. Egitasmoak etorkizuna zuela sinisten genuen, eta horixe izan zen aurrera egiteko bultzada. Internetera jauzia egiteko apustu argia egin zuen Elgoibarko Izarrak eta hori hala izateko beharrezko baliabideak jarri genituen guk. Sei urte pasa dira, eta emaitzak begibistan daude.

Alor teknikoetan laguntza eta aholkua eman diguzu hasieratik. Software libre batekin sortutako ataria da gurea. Azalduko diguzu horrek zer esan nahi duen?

Software libre filosofia bat da. Hainbat lagunek, komunitateen bidez, elkarlanean sortzen dituzten aplikazioak edonoren eskura jartzen dituzte sarean, doan. Eskuratu ondoren erabili, kopiatu, aztertu, moldatu eta banatu daitezkeen softwarea da. Horren atzean, aplikazio iturri horiekin sortzen ditugun aplikazio berriak komunitatearen esku jarriko ditugunaren esperantza dago, edo gutxienez zerbaitetan lagunduko dugula. Aplikazioak guztion esku jartzeko era bikaina da, zalantza barik. Horri esker, gastu ekonomiko gabeko sistema batean sortu dugu *elgoiBARREN.net*. Gainera, software librea izanik, nahieran aldatu eta gure beharretara egokitzea errazagoa izan da. Hau da, sistemaren kontrola gure esku dago. Era berean, Elgoibarko ataria antzerako beste proiektu batzuk abian jartzeko eredu izan da, Sorluzeko *plaentxia.com* ataria kasu, *elgoiBARREN.net*-en anaia bikia, nolabait esatearren.

Zein da zure ustez *elgoiBARREN.net* atariak egin duen ekarri handiena?

Berehalakotasuna. Gauzen berri gertatu ahala izatea, zuzenean. Abantaila handia da Elgoibarren zein kanpoan bizi diren elgoibartarrentzat. Blogen atalari esker, hainbat erakunde eta talderen inguruko informazioa bitartekariarik gabe jasotzea ere eskertzen dut.

Erabilizaille moduan zer da gehien gustatzen zaizuna?

Herrian gertatu edo gertatzen ari denaren berri izateko tresna egokia da. Baita kultur eskaintzaren berri izateko edo beharra dagoenean gida komertzialean kontsultaren bat egiteko ere. **BARREN** aldizkaria ere Internetez irakurtzen dut, barixaku goizean jartzen duzuen PDFan. Blogarien artikulua ere interesatzen

zaizkit eta argazki bildumak ikustea ere gogoko dut. Atal interesgarri asko daude, eta denbora apur bat daukadanean gustatzen zait han eta hemen saltseatzea.

PDFak aipatu dituzu. Badakit garrantzi handia ematen diozula azken hogeitau urteetan argitaratu diren **BARREN guztiak *elgoiBARREN.net* atarian egoteari.**

Aspaldiko helburu eta borroka pertsonala izan dut hori. Orain 17 urte Elgoibarrera ailegatu nintzenetik **BARREN** astekarian lanean ibili direnengandik gertu egon naiz beti, eta noizbehinka, arazo teknikoak egon izan direnean-eta, arazoak konpontzen lagundu izan diet. **BARREN**ak PDF formatura pasatzearena hasiera hasieratik izan dudana kezka izan da. Azken zazpi edo zortzi urteotan argitaratutako **BARREN**ekin errazagoa izan da prozesua. Ale zaharragoekin, baina, konplikatuagoa izan da, orduan erabiltzen ziren euskarriak eta gaur egungoak asko aldatu direlako, besteak beste. Zorionez, laster izango dugu lan guzti honen emaitza ikusteko aukera, **BARREN**EN 20. urteurrenarekin batera, orain arte kaleratu diren ale guztiak *elgoiBARREN.net* atarian izango dira-eta, edonork kontsultatzeko moduan. Bilatzailean "bilatu" aukeratu zerbait idatzi eta bilaketa egiten dugunean, PDF guztien edukietan egingo du bilaketa. Hala, elgoibartarrei honako mezua ailegatzea nahiko nuke: *elgoiBARREN.net* sistemaren daukagula eskura daukagun hemeroteka osoena. Erabilera asko izan ditzake honek. Bat aipatzearen, ikastetxeetan erabiltzeko tresna egokia izan daiteke, Elgoibarren gertatu eta **BARREN**ek jaso duenaren wikipedia baten parekoa da.

Zertan hobetu daiteke proiektu hau?

Epe laburrean sare sozialekin integrazio handiagoa izatea, gida komertziala eguneratzea, herriko jendearekin, komertzioekin eta enprekin elkarlan proiektuak bultzatzea, e.a. Hainbat arlo eta ideia daude lantzeko, eta ezinbestekoa izango da guztion ekarpena. Finantziario iturri berriak aurkitzeko beharra ere premia-koa da. Epe erdira, berriz, merkatuaren bilakaerak bultzatuta paperezko bertsioa desagertzera joango den heinean, on-line euskarria izango da **BARREN**ek abiatutako proiektuarekin jarraitzeko. Bizirik mantentzea gure esku dago. Horretarako, batetik, ezinbestekoa da beharrezko baliabideak jartzea, eta, bestetik, herri-tarrei *elgoiBARREN.net* euren dela sentiarazi behar diegu.



ZEU ZARA PROTAGONISTA



Larrea auzoa z/g - 48340 Amorebieta-Etxano (Bizkaia)
info@zornotzakobarnetegia.com
www.zornotzakobarnetegia.com
Tel.: 94 630 83 04



JOSE ALBERTO GURRUTXAGA KONDE

*Lagun handia eta leiala
beti zeunden irribarretsu
gaixotasun bortitz honek
gugandik urundu zaitu
zure umore eta alaitasuna
betiko izango ditugu.
Agurrik ez, gero arte
besarkada bat zuri, "Guru".*



2012ko abenduaren 10ean hil zen,
62 urte zituela.

"BAIKOR" koadrilakoak



MARIA LETE GABILONDO

*Benetako euskaldun
jatorren kidea
beti erabili duzu
nekezko bidea
zuk ondo bete duzu
euskaldunen legea.*

2012ko abenduaren 4an hil zen





• Zorionak, **Nagore**, hila-
laren 1ean 7 urte egin
zenituelako. Muxu
handi bat etxekoan,
eta bereziki, Unai eta
Juneren partez.




• Zorionak, **Elene**, hila-
ren 9an 5 urte egin
zenituelako. Familiakoan
partez.



• Zorionak, **Uxuel** Mu-
xu handi-handi bat
etxekoan eta lagun
partez.



• Zorionak, **Uxuel** Mu-
xu handi bat amatxo,
aitatxo eta Agurtzane-
ren partez.



• Zorionak, **Klara**, las-
ter 5 urte egingo ditu-
zulako. Primeran pasa!
Patxo bat etxekoan eta
bereziki, lan eta Telmo-
ren partez.



• Zorionak, **Igor**, gaur 5
urte egin dituzulako.
Muxu asko familiakoan
partez.



• Zorionak, **Urko**, do-
mekan 7 urte egingo
dituzu-eta! Muxu handi
bat Irati eta etxekoan
partez.



• Zorionak, **Ifigo**, aste-
azkenean 7 urte egin
zenituelako. Muxu
handi bat etxeko guz-
tien partez.



• Zorionak, **Victoria**,
abenduaren 16an 2 ur-
te egingo dituzulako.
Familiako guztien par-
tez.



• Zorionak, **Martin**, as-
telehenean 5 urte egin-
go dituzulako. Muxu
handi bat familiakoan
eta bereziki, Unairen
partez. Txapeldun!



• Zorionak, **Ane**, aben-
duaren 11n 6 urte egin
zenituelako. Muxu
handi bat etxeko guz-
tien partez.



• Zorionak, **printzesa**,
astehenean 4 urte
potolo beteko dituzula-
ko. Ondo pasa, familia-
koan eta, bereziki,
Markelen partez.



• Zorionak, **Maria eta Oihan**,
igandean urteak
egingo dituzulako. Ondo-
ondo pasa eta muxu
handi bana etxeko denon
partez.



• Zorionak, **Maria**, as-
teazkenean 3 urte be-
teko dituzulako. Etxe-
koan, eta bereziki,
Alainen partez.



• Zorionak, **Sarai eta Danel**,
abenduaren 30ean
eta 11n zuen egunak ospatuko
ditugulako. Mu-
xu asko familiakoan partez.

AGURREN ATALEKO PREZIOAK: Erretratu bakarreko agurra 4€.
Argazki bikoitza 6€, hirukoitza 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:
Erretratu bakarreko agurra 3 €. Argazki bikoitza 5€, hirukoitza: 7€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Argazkiak **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira **BARRENEKO**
bulegora, 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

■ MERKATU TXIKIA

LANA

ESKAERA

- Emakumea nagusiak zaintzeko edo sukaldari nahiz zerbitzari lanak egiteko prest. Garbiketak ere egingo nituzke. ☎ **654 743 313**
- Emakumea nagusiak zaintzeko edo sukaldari nahiz zerbitzari lanak egiteko prest. ☎ **627 162 936**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo garbiketara lanak egiteko. Esperientziaduna. ☎ **660 113 373 (Agustina)**
- Emakumea eskaintzen da umeak zein nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. ☎ **685 771 734**
- Emakumea eskaintzen da lanerako: nagusiak zaintzeko, esperientziaduna. Orain arte barrietan egin du lan, bereziki. ☎ **653 723 095**

ESKANTZA

- Irakurzalea den euskaldun zaharra behar dut. Euskarazko literaturaz gozatzeaz gain, ozen ederki irakurtzen duena. Astehenetik barixakura, 13:30etik 14:00etara. ☎ **660 969 679**

ETXEBIZITZAK

- Etxea alokairuan Santa Ana kalean. Bi logela, egongela, ganbara, igogailua. Altzariekin. ☎ **639 825 085**
- Logela alokatzen dut, etxebizitza erosoan. ☎ **648 210 852**
- Erdigunean 97m2ko duplexa, 85m2ko lorategia eta 15m2ko garaje itxia salgai. Lehen solairuan: sukaldea, komuneta eta egongela-jangela handia. Bigarren solairuan: komuna, bi gela armairu enpotratuarekin eta beste gela bat jantzileku eta terrazarekin. 390.000 euro. Beste garaje itxi bat aukeran. ☎ **661 700 433**
- Etxea alokatzen da Elgoibarko erdigunean. Bi logela, egongela, despentsa. Jantzita. Berri samarra. Igogailuarekin. ☎ **943 203 083**
- Aukera! Mendaron etxe berria salgai. 132.000 euro. ☎ **690 787 891**

BESTELAKOAK

- Gazteentzako lokala alokairuan. ☎ **648 210 852**

- Goiko Errota elkarteak bazkide berriak hartuko lituzke. ☎ **619 574 247 (Felix)**
- Koltxoi babesgarria salgai. Kotoia 100%. Mash markakoa. 160x190cm. Oso merke. ☎ **686 882 162**
- La Unión elkarteak bazkide plaza salgai. ☎ **659 773 681 (Josu)**
- Urme karro bat oparitzen dut. Kapazoa eta aulkia ere bai. Bebecar ipod markakoa, gorria. ☎ **635 741 955 (Nere)**
- Maclaren etxeko twin techno bikientzako aulkia salgai. ☎ **650 132 164**

KINTOAK

- 68ko kintoen bazkaria urtarilaren 26an. 50 euro sartu, Euskadiko Kutxako kontu honetan: 3035 0007 21 0071125749. ☎ **628 680 252 (Maite) / 605 775 357 (Ignacio)**

14 barixakua

Antzerkia

20:30 'Gipuzkoako itxaropenaren telefonoa'
Kale antzerkia. Maalan hasita.

Kirola

19:00 **Pilota partidak**
Murkaikupe txapelketako finalerdiak, Aistian.

Dantza

20:30 'Urban show'
Hip Hop dantza ikuskizuna, Herriko Antzokian.

15 zapatua

Politika

9:00 **Sorturen eratze batzarra**
Sorturen ildo politikoa landuko dute, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Xakea

10:00 **Xake txapelketa**
Eskola Kiroleko xake txapelketa jokatu dute, udaletxeko pleno aretoan.

Kirola

10:00 **Euskal Pilota Egokituko Txapelketa**
Ikastolako frontoian.

Kirola

16:30 **Igeri erakustaldia**
Igeriketa Eskolako lau taldeetako hurrek eta Master taldeetako helduek erakustaldia eskainiko dute Olaizaga kiroldegiko igerilekuan.

Musika

22:00 **Kontzertua**
Jaik, Materia Gris eta Eskean Kristo taldeek kontzertua eskainiko dute Gaztetxean.

16 domeka

Lehiaketa

10:30 **Jaiotza lehiaketa**
14 urtetik beherako umeentzako. Parrokiako arkupeetan jarriko dituzte ikusgai. Sari banaketa, eguerdian, parrokiaren bertan.

Irteera

9:30 **Mendi irteera**
Kalamua guraso elkarteak antolatuta, Izarraitz ingurura egingo dute irteera. Netton batuko dira.

Irteera

10:00 **Mendi irteera**
Ikastolako Gurasoek antolatuta, Otarrera egingo dute irteera.

17 astelehena

Bertsolaritza

9:00 **Sarrerak salgai**
Neguko bertso saioa antolatu du Elgoibarko Izarrak abenduaren 27rako, eta dagoeneko sarrerak salgai daude elkartearen bertan. 10 euro (bazkideek, 9 euro). Unai Iturriaga, Alaia Martin, Andoni Egaña, Xabier Amuriza eta Jon Maia arituko dira bertsotan Herriko Antzokian, denak ere Uxue Alberdiren esanetara.

Hitzaldia

17:00 "XXI. mendeko politika ulertzea"
Haizeak antolatuta, Carmen Agirrek eskainiko du. Kultur Etxean.

Hitzaldia

19:00 'Atundu'
Haritz dantza taldeak antolatuta. Ane Albisuk eskainiko du hitzaldia, Musika Eskolako auditorioan.

18 asteartea

Literatura

18:00 **Literatura tailerra**
Antonio Muñoz Molinaren Sepharad liburua landuko dute. Udal liburutegian.

19 asteazkena

Kirola

19:00 **Kirol federatuaren sariak**
Urteko kirol sariak banatuko dituzte, kultur etxeko sotoan. Txirrindularitzari buruzko mahaingurua ere egongo da.

16 domeka: **IBARRENEA**

Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384

BOTIKA ORDUTEGIAK: 9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

G U A R D I A K

Egunez

9:00 - 22:00

30 Ibañez
1 Garitaonandia
2 Garitaonandia
3 Etxeberria
4 Fernandez
5 Yudego
6 Yudego
7 Barrenetxea

Gauetz

22:00 - 9:00

Barrenetxea
Garitaonandia
Garitaonandia
Etxeberria
Garitaonandia
Yudego
Yudego
Barrenetxea

ZINEA

'Amanecer'

15, zapatua: 19:00/22:15
16, domeka: 19:00
17, astelehena: 21:30

'Barrura begiratzeko leihoak' (Ongarri)

20, eguena: 21:30

ESKERTZA

MARIA LETE GABILONDO

2012ko abenduaren 4an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Baliteke gidariren bati teleordainketa berriak ilusiorik ez egitea

Gipuzkoako autobideetan, gehienez

25,64€ / hilean
(gipuzkoarrentzat bakarrik)

AP-1 / AP-8

VIA-T teleordainketa



Ibilgailu homologatua baldin baduzu eta mutur batetik bestera ibili behar baduzu, autobidean barrena, interesgarria irudituko zaizu zifra hau: 25,64 €/hilean. Gehieneko tarifa berria duzu, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Bidegik martxan jarria, AP-lean eta AP-8an egunero ibiltzen diren milaka gipuzkoarren gastua arintzeko.

www.bidegi.net



Gipuzkoa
BERRIA



Orain internetez ere eros daiteke!

Erosi gure produktuak, eroso eta erraz, etxetik mugitu gabe.

www.muruamendiara.com

GURE PRODUKTUAK SOILIK PUNTU HAUETAN TOPATUKO DITUZU:

“Muruamendiara”

San bartolome, 29
20870 Elgoibar
943 740 345

“Muruamendiara”

Diputazio kalea s/n
48260 Ermua
943 176 803

“Txuritu”

Santa Ana kalea, 22^a
20590 Soraluze
943 752 443

“La Golosina”

Urkizu pasealekua
20600 Eibar
943 120 248